

EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KONFEDERAZIOA
EUSKALTZAINDIA

Zenbait orientabide erregistroen trataeraz



EUSKALTZAINDIA

ZENBAIT ORIENTABIDE
ERREGISTROEN
TRATAERAZ

JAGON SAILA

Sustapen Batzordea:

BURUA

Andres Iñigo

IDAZKARIA

Erramun Osa

KIDEAK

Sagrario Aleman

Erramun Baxok

Pierre Charritton

Jean-Baptiste Coyos

Aingeru Epaltza

Henrike Knörr

Patxi Juaristi

Santiago Larrazabal

José Luis Lizundia

Manuel M. Ruiz Urrestarazu

Ana Toledo

Andres Urrutia

EGILEAK:

Mikel Barrios Vazquez

Erramun Osa Ibarloza

Inma Muñoa Barredo

Itziar Elorza Alday

Kristina Boan Martikorena

Esker bereziak Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren Hizkuntza Proiektuko eta Euskaraz Biziko Ikastolei eta teknikariei ohar eta iritziengatik.

EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KONFEDERAZIOA
EUSKALTZAINDIA

ZENBAIT ORIENTABIDE
ERREGISTROEN
TRATAERAZ



EUSKALTZAINDIA

BILBO
2008

ZENBAIT orientabide erregistroen trataeraz / Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, Euskaltzaindia, Jagon Saila. – Bilbo : Euskaltzaindia, 2008

96 orr. ; 24x17 cm. – (Jagon ; 6)

ISBN: 978-84-95438-40-9

1. Euskara-Euskalkiak. 2. Euskara-Gizarte ikuspuntua. I. Euskaltzaindia. Jagon Saila. Sustapen Batzordea. II. Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa. III. Jagon (Euskaltzaindia)

Eskubide guztiak jabetunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiazea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Diseinua: Ikeder, S.L.
Aurreinprimatzea: Ikur, S.A.
Inprimatzea: Baster, S.L.L.

ISBN: 978-84-95438-40-9
Lege-gordailua: BI-1962-08

AURKEZPENA

Euskaltzaindiaren eta Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren harremana aspaldikoa bada ere, 2004ko urriaren 21ean lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten elkarlanean oinarritutako ekintzak eta lan egitasmoak abian jarri nahian.

Kontuan izatekoa da bi erakunde hauek muga administratiboetatik gaindi daudela eta Euskal Herri osoan eta osorako lan egiten ari direla. Izan ere:

Batetik, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Foru Diputazioen eraginez sortutako Euskararen Akademiaren xede nagusia euskararekin zerikusia duten gai guztiak lantzea da. Gainera, Euskaltzaindia Hegoaldeko bi Autonomia Erkidegoetan, euskarari dagokienetan, erakunde aholku emaile ofiziala da.

Bertzetik, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak, euskara eta euskal kultura ardatz dituen hezkuntza integrala lantzea eta ikastolei laguntza eta kalitatezko euskal eskola sustatzea ditu helburu, eginkizun horretan prestakuntza eta aholkularitza eskainiz eta ikasmaterialek sortuz.

Bi erakunde hauek, hitzarmenaren bitartez, euskararen normalizazioa bideratzeko asmoa adierazi zuten. Helburu hori lortzeko zenbait proiektu praktikan jartzea aurreikusi zuten, batik bat euskararen kalitatea sustatzeko elkarlanean testuak nahiz ikerketa lanak bulkatzea, batera argitaratu eta kale-ratu ahal izateko.

Asmo horren fruituetako bat da, hain zuzen, esku artean duzun *Zenbait orientabide erregistroen tratuaz* txosten marko hau. Ikusten ahalko duzun bezala, euskara zaindu eta eredu onak irakasteko orientabide eta proposamenak biltzen diren txosten honetan, bertzeak bertze, Euskaltzaindiaren *Adierazpena Euskalkien erabilera Irakaskuntzan, Komunikabideetan eta Administrazioan* izeneko araua garatzeko ahalegin bat egin da. Erregistro egokietan oinarrituta hizkuntzaren erabilera indartzea da asmoa, erabilera hori garatzen eta gauzatzen joan ahala euskararen normalizazioak gizartean urratsez urrats aurrera egin dezan.

Andres Iñigo,
Jagon sailburua

AITZIN SOLASA

Sortzez geroztik, euskara nonahi, noiznahi eta zernahirako balia dadin euskara eguneratzen ahalegindu da Euskaltzaindia. Testuinguru horretan, lehenagotik zetozen ahaleginei segida emanaz, igaro berri den mendeko 60ko hamarkadan, euskararen batasun bideak berealdiko bultzada jaso zuen, hizkuntza gutxiagotu baten indarberritzea ahalbidetzeko oinarrizko habeetako bat ezarriz, bidenabar. Habe horrek, hain zuzen ere, corpus plangintzarekin dauka zerikusia, eta corpus bateratu horren zabalkundean, ez neke eta eztabaidarik gabe, ikastolen mugimendua izan zuen aldamenean Euskararen Akademiak.

Batasun bideak bizirik zeuden euskalkiak ahuldu, higatu ez ezik, euskararen beraren galbidea ere, areagotu ez besterik egingo zuela esaten zuenik bazegoen bazterretan. Alabaina, euskalkiak eta eredu bateratua aurrez aurre jarri ordez, euskararen beraren biziraupena zen ataka zailean zegoena ezen, hastapenetik, tokian tokiko aldaerak eta eredu bateratua elkarren osagarri izan daitezten ahalegindu baita Akademia.

Euskara ez dago, zorionez, sasoi batean zegoen egoera zailean. Izan ere, euskararen batasunak nola baita haren inguruabarrean egituratu den status plangintzak azken hogeita bost urtean euskararen indarberritzea ahalbidetu baitute, euskaraz jarduten duen hiztun-elkarteak inoiz izan gabeko hiztun kopururik altuena eta erabilera-eremurik zabalena izatea posible eginez. Alabaina, baikorkerietan ez gaitzezen eror: bide luzea egin dugu, halere, euskararen indarberritzea erabat gertatzeko are luzeagoa dugun oraindik eginkizun.

Eta eginkizun ditugun gauza horien artean, tokian tokiko aldaerak, aldaera jasoak, erabilera eremu ez-formalean euskararen erabilera indartzeari begira baliatu beharreko erregistroak eta abarrak hezkuntza munduan bideratu ahal izateko marko bat eraikitzea dago. Izan ere, eskola zein ikastoletan askotariko erregistroak baliatzeko moduko erabilera-eremuak daude, beraz, horiek kontuan, erabilera formaletan ez ezik erabilera ez-formaletarako ere erregistro desberdinak sustatzeko, baliatzeko aukerak egon

litezke. Inguruan eredu bateratua ez den erregistroa baliatzen delarik, horren erabilera ezin bultza liteke eskola-espazioan? Ahozko jardunetik idatzira urratsak egin behar diren hasierako urteetan etxetik dakarten ereduak ez dauka klase-barruko jardunean sarbiderik? Ahozko tradizioa ez ezik eredu bateratu baterako urratsak egin dituzten euskalkiek lekurik ba ote dute hezkuntzan? Galdera hauek, aspalditik, eztabaidagai gertatu dira ikastoletan.

Kezka horrek bultzaturik, Gasteizen, 2004an burutu ziren Jardunaldi Pedagogikoetan, Euskaltzaindiak euskalkiei buruz hartu berria zuen erabakia lau haizeetara barreiatu zuelarik, adierazpenean esandakoak garatzeko ez ezik erregistro desberdinak garabidean jartzeko eredu bat eraikitzeko abagunea ikusi zen. Oinarrizko dokumentu bat prestatu eta askotariko eragileei ez ezik ikastoletan aurkezteari eta ekarpenak jasotzeari ekin genion, honenbestez. Ehun bat ekarpen jaso genituen, hasiera bateko proposamena biribiltzen-eta lagundu zutenak. Hona bada, emaitza. Eskuarlean daukagun gaia zein den kontuan, irekia den ekarpena. Hezkuntzan jarduten duten askotariko eragileek erabilgarria dela irizten dioten neurrian bidea eginez, moldatzen eta eguneratzen joango dena.

Euskaltzaindiak eta Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak elkarrekin izenpetuta duten hitzarmenean, euskararen normalizazioa indartzeko ekimenak abian jartzea dagoelarik, besteak beste, euskararen erabilera sustatzeko ikerketa lanak bultzatuz, elkarrekin lanak argitaratuz eta kaleratuz, lan hau euskal gizartearentzat, hezkuntzan dabilzantentzat bereziki, interesekoa izan litekeela iritzirik, argitaratzea erabaki dute.

Hona, bada, 2004ko Jardunaldi horietatik burutu den eztabaidak orain arte eman duena. Aztergai dugun gaia estrategia orokor batean txertatzeko lagungarri, bidelagun gertatzen den neurrian egileen asmoak bete egingo lirатеke.

J. I. Etxezarreta Alberdi,
Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, zuzendaria
2007-12-17

SARRERA

Aitzindariak dira Ikastolak euskararen irakaskuntzan, eta betidanik ikastolen mugimenduaren barruan kezka nagusietariko bat izan da euskararen kalitatea zaintzea eta eredu onak erakustea. Horri loturik, gazteen artean euskararen erabilera indartzea ere helburu garrantzitsuenetako bat da Ikastoletan. Helburu horiek, besteak beste, aztergai izan ditu Ikastolaren Hizkuntz Proiektua Definitzeko Oinarriak¹ izeneko egitasmoak eta honelako definizioa azaldu zuen:

Ikastolan lantzen diren hizkuntzen irakaskuntza eta erabilerari dagokien alderdiak bilduko dituen eta haien trataerari koherentzia emango diona da Hizkuntz Proiektua.

Aipatu dokumentuan, Ikastolen izaerari eta helburuei dagokien hizkuntza eta hezkuntza politikarako oinarriei buruzko atalean dioenez, euskararen eta euskal hezkuntzaren inguruan dihardugunok, besteak beste, euskararen normalkuntza bideratu ahal izateko lan egiten dugu. Aurrerago hobeto zehazten du hizkuntza normalkuntza zer den:

Hartara, hizkuntza normalkuntza euskararentzat hiztunak mantentzera eta gehitzera zein erabilera eremuak irabaztera bideratutako prozesu sozialtzat definituko genuke. Horren kariaz, alderdi ez-formal zein formaletan, ahozko zein idatzizko elkarrekintzetan, hizkuntza komunitatearen barne erlazioetan euskara ohiko hizkuntza bihurtuz edo mantenduz.

Helburu horiek erdiesteko, berriz, hainbat jardunbide edo era zehazten ditu dokumentuak, eta, horien artean, bat nabarmendu nahi dugu txosten honetan, hain zuzen euskararen kalitatea zaintzeaz eta eredu ona erakusten ahalegintzeaz diharduen atala. Horrek ez du esan nahi besteak aintzat hartzen

¹ Elorza, I. eta Osa, E. (2002).

ez ditugunik, baina txosten honen kokapena bereziki nabarmendu nahi dugun proposamen horretan aurkituko dugu.

Euskararen kalitatea zaintzeaz eta eredu ona erakustez diharduen atal horretan hainbat kontu aintzat hartzen dira gazteen artean euskararen erabilera indartzeko, bai eta etorkizunean azpimarratu beharreko ildo batzuk:

(...) Halaber, gazteen artean euskararen erabilera indartzeko bestelako aldaerak (argota, hitanoa, etab.) sailkatzea eta kontuan hartzea garrantzi handiko kontuak dira. Izan ere, euskara egokia eta une egokian erabiltzeko gai ez den hiztunak ez du komunikaziorik lortuko, ez du hizkuntza erabiliz gozatuko, eta, azken batean, euskara bazterrean utzita beste hizkuntza batez baliatuko da.

Halaber, euskara “ona” erakusteko orduan irakaslea denez mezuaren zubi egiten duena, bera da aipatu faktore horien guztien azken katea. Horregatik du garrantzi handia irakaslearen hizkuntza ereduak. Euskara “ondo” erakusteko, euskara “ona” erabili behar baita. Halere, hori ere ez da nahikoa, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuei buruz eta zehazki hizkuntzen irakaskuntza-ikaskuntza prozesuei buruz ondo bermatutako printzipio teorikoak eta faktore pedagogikoak badira. Bada, irakasle “ona” izateko, informazio teoriko hori bere eguneroko praktikan duen eskarmentuarekin uztartzen asmatu behar du.

Etorkizunari begira, bada, ildo hauek azpimarratuko ditugu:

- Euskaraz ondo hitz egitea eta idaztea bada euskararen normalizaziorako helburua, eskoletako hizkuntza nagusia euskarak izan beharko du.
- Ikasle bakoitzaren hizkuntza abiapuntuari egokitutako murgiltze ereduak definitu, DBH amaitzean ikaslearen gaitasuna bermatua izan dadin.
- Eskoletan oinarritzat hartzen den hizkuntza ereduak arreta berezia eskaini behar die tokian tokiko euskararen aldaerei.
- (...)
- Irakasleek euskara “ona” erabil eta euskara “ondo” irakats dezaten, hasierako eta etengabeko prestakuntzan ahalegin are handiagoak egin behar dira.

Dokumentu berean, orobat, hizkuntzari buruzko ikuspegiak ari denean, honela dio komunikazioaren inguruan:

Komunikazioa eragingarria izan dadin, hizkuntzaren erabilerarako arauak –halako edo bestelako forma linguistikoak halako egoeretan, halako pertsonekin eta komunikazio-xedea kontuan izanik– erabiltzen jakitea behar beharrezkoa baita.

Ikastola bakoitzak bere Hizkuntza Proiektua definitzeko gidaren barruan atal bi bereizten dira: pedagogikoa eta instituzionala. Ereku pedagogikoaren barruan, interakzio didaktikoari buruzko atalean, berriz, komunikazioa zein esparrutan gauzatzen den kontuan hartu beharra dakar:

Testuinguru eta komunikazio egoeraren arabera hizkuntz aldaera egokia (tokian tokiko azpi-euskalkia, euskalki standarda edo eta batua) hautatu eta bakoitzean trebatzeko baliabideak finkatu.

Ikastolaren ereku instituzionalean ere, interakzioaren barruan eta zeregin eta egitekoen ari denean honela dio:

Irakasleen hizkuntz erabilera eta kalitatea: irakasleak dira ordutegi barruan euskararen erabilera sustatzen eta harekiko prestigioa nabarmen-tzen dutenak. Beraiek dira hizkuntz eredu eta motibazio eragile nagusiak, beraz, ikastolak bideratu beharko lituzke:

- Irakasleak ikasleentzat euskararen eredu ona eta aberatsa izateko bitartekoak.
- Irakasleak euskararen normalkuntzaren aldeko eragile izateko bi-deak.
- Irakasleak, ahal den neurrian, lekuan lekuko aldaera, eta, orokor-rean, harremanetarako hizkuntzaren erregistro eta hizkera bizia erabil dezaten bitartekoak (formazioa barne).

Beraz, dokumentu horretan zeregin, egiteko eta zenbait beharren azterketa egiten da: bestelako aldaerak kontuan hartu beharra eta komunikazio egoeraren araberako euskara egokia erakustea eta erabiltzea hain zuzen. Horrexetara datoz, bada, txosten honetan jorratu nahi ditugun gaiak; batetik, bestelako aldaerak kontuan hartu behar direla, eta, bestetik, zertarako eta komunikazio egoeraren araberako erregistro egokia gauzatzeko, batez ere erregistro ez-formala lantzeko.

Txosten honen bitartez argi izpi bat egin nahi dugu hezkuntza munduan hizkuntza aldaera eta erregistroei buruz plazaratu diren gomendio, jarraibide eta orientabideen gainean, eta ahal dela hezkuntzan, bai gela barruan, bai gelaz kanpo, berauek lantzeko orientabide batzuk eman. Egokiagoa iruditu zaigu lehenik eta behin zenbait kontzeptu argitzen hastea, oinarritzkoenetatik hasita, gero norberak ikastola bakoitzaren egoera soziolinguistikoaren arabera zehaztu dezan hemen egingo dugun proposamena. Eta, izan ere, horixe da hau, proposamen bat, arau gisa inolaz ere ulertu behar ez dena.

Hala bada, honelaxe egituratu dugu txostena: lehenik, zenbait adituren iritziak jaso nahi izan ditugu; bigarrenik, hizkuntzaren bariazioari buruzko kontuak ekarriko ditugu eta erregistro zeri deritzogu argitzen ahaleginduko

gara; hirugarrenik, euskararen trataera teorikoa eskolan jorratzen duten hainbat dokumentu iruzkinduko ditugu; laugarrenik, zenbait ikastolatan hizkuntzaren trataera praktikoa ikusiko dugu; bosgarrenik, euskararen trataera-markoa zehazten hasiko gara, eskolaren zereginak, funtzioak eta helburuak zeintzuk diren aintzat hartuz; seigarren atalean, berriz, aukeren araberako marko bat proposatuko dugu; zazpigarren atalean, kontuan hartu beharreko faktore batzuk gogoraraziko ditugu; eta zortzigarren atalean, azkenik, zenbait ekarpen, ohar, galdera eta zalantza bildu ditugu eta haietako batzuei erantzuten ere saiatu gara.

1. EUSKARAREN KALITATEA ADITUEN IRITZIZ

Txosten hau egiteko orduan ezinbestekoa da aintzat hartzea euskararen kalitatearen inguruan zenbait adituen iritziak eta adierazpenak. Kontu jakina da ia gehienok bat gatzela arazoak zein diren esatean baina, adostasun hori, ordea, ez da erabatekoa irtenbideak proposatzeko orduan. Hala ere, zerbait konpontzen hasita, lehenengo urratsa eginda daukagu arazoaz jabetu bagara. Hau da, “(...) belaunaldi berrien euskara gero eta eklektikoagoa da, ahozko harremanetan sistematikoki nahasten dira euskara batua, erdarakadak, norberaren hizkera edo euskalkia (bizirik dagoen tokian) edo/eta beste euskalkiak”².

Aipu horri zerbait gehiago eransteko moduan gaude, ebaluazio lanetan izandako eskarmentuari esker, hau da, *abozko harremanetan eta idatzietan, erregistro formalen eta ez formalen alderdien formak nabasian ematen dira*³. Baina jarrai dezagun aurrera arazoa deskribatzen *Euskararen kalitateaz* txostenak jaso dituen iritzien ildotik:

Gazte euskaldunen euskara maila, oro har, ez da ona; ez ditu asebetetzen beren behar komunikatiboak. Gazte euskaldun gehienek adierazkortasun arazoak dituzte:

Euskarazko gaitasun pasiboetan trebeagoak dira... Aurrera egin da erregistro jaso-formal-espositiboetan (...) eta atzera, berriz, mintzajardunaren esparru informal, barrenkoi-intimuetan... Aurrera egin da batuaren ezagupenean eta gero eta urrun-etenagoa gertatzen zaie askori inguruko baserri-giroko hizkera moldea... Ohiko hots-ebakeran eta doinueran atzera egin da. (M. Zalbide)

² Euskararen kalitatea (2004), EABren txostena.

³ 2002, 2003 eta 2004 ikasturteetan hainbat ikastolako 5.000 ebaluazio-proba idatzi aztertu dituen lan-taldearen iritziz.

Argota eta gazte hizkera sortzerakoan “argot nazionalaren” hutsunea nabarmena da. Gazteek darabiltzaten erreferentzia nagusiak “lokalak” (euskalkia) edo “erdarak” dira. (Asisko Urmeneta).

Erregistro bakarreko “estandarra” baizik ez daki askok. Bestalde, zuzentasuna eta egokitasuna nahastu, eta zuzendu behar ez liratekeenak ere zuzendu egiten zaizkie askotan:

“Argota” edo “gazte hizkera” gisa har daitezkeen fenomeno asko “erabilera ez zuzentzat” hartzen dira (jota ona, jebixe, zeba etorri behar dut berandu?).

Euskara batuaren izenean sarri askotan hizkuntzaren bariazioa eta bariabilitatea ukatu izan dira (I. Gaminde).

Gero eta zailagoa da gazteen hizkuntz erregistroa identifikatzea. Hizkera nahasia da. Erdiak baino gehiagok (%54k) ez daki herriko hizkeraz hitz egiten (I. Mz. de Luna eta K. Berri-Otxoa):

Euskalkiak oso euskarri garrantzitsua dira gazte hizkeran, baina ez dira geografikoki modu hertsian erabiltzen. Gaur egun, guztiok entzuten dugu euskalki bat baino gehiago (TB, musika, irakurketa bidez...).

Euskalkien eta estandarren arteko hibridazioa gero eta nabarmenagoa da. Gure hizkerak nahasten eta hurbiltzen ari dira.

Batua, norberaren hizkera edo euskalkia, gainerako euskalkiak, erdarakadak... den-denak nahasiak erabiltzen dituzte gazteek, jatorri eta zonaldearen arabera proportzioak desberdinak badira ere.

Perpau barruko kode aldaketa [gaztelania tartekatzea] elebidunen arteko komunikazioan oso maiz gertatzen den fenomeno da (...) erabilera horren zergatia hitzunen euskarazko gaitasun urria baino sakonagoa izango litzateke (konnotazioak, umorea edo ironia, egoera kontestualizatuak azpimarratzeko... (I. Muñoa).

Gazteek familian euskalkia edo/eta erdara entzun dezakete; komunikabideetan, batua, euskalkia edo nahaski bat; eskolan, berriz, batua gehienbat. Euskalkien mugak hautsi egin dira, eta garbi dago zein diren muga hauste horren eragile nagusiak: TB, internet, unibertsitatea, musika...”.

Horra Euskararen Aholku Batzordeak kaleratu duen *Euskararen Kalitateaz* liburuxkan jasotako hainbat aipu gazteen euskararen kalitatea deskribatze aldera. Txosten horrez gain, badira beste iritzi batzuk, azken baten antzeko

ondorioetara iristen direnak, esate baterako Koldo Zuazo hizkuntzalariak aipatzen dituenak⁴:

- a. Gurasoen euskaren eta seme-alaben euskaren arteko desberdintasun handia.
- b. Marteko hizkera: hizkera berri eskas hori.
- c. Euskara sasiletratua: euskara jaso bera beti erabiltzea: berdin dio norekin, zertarako eta non.
- d. Orotariko euskara: hango eta hemengo osagaiak, antzinakoak eta oraingoak denak nahastea.

Beste hitz batzuekin esanda, baina lehen esan dugun bezala, antzeko ezaugarriak aipatzen ditu Zuazok gaurko gazteen euskara deskribatzean.

Gaurko euskaldunen gaitz horien iturburuak zehaztean, batez ere, bada bat guztion adostasuna biltzen duena, belaunaldien arteko transmisioaren eteteaz ari gara, alegia. Euskara ikasteko modurik naturalena betidanik etxea izan da. Baina umeak eskolaratu orduko badirudi etxeko euskarari garrantzia kentzen diogula eta haren gainetik jartzen dugu eskolan ikasitakoa. Horren ondorioz, guraso euskaldun euskalkidunek sarri askotan amore ematen dute etxean sartzen den eredu horren aurrean eta ez dute ez adorerik, ez konfiantzarik, umeak eskolatik dakarren eredu formal horri eurena, seguruenez eskolatik kanpoko erabilera ez-formaletan erabiltzeko egokiagoa dena, kontrajartzeko edo euskaraz txarto esandakoa zuzentzeko.

Bestalde, gazteek ez dute hitz egin nahi gurasoek, zaharrek egiten duten bezala. Gazteek euren hizkera nahi dute, taldearekin identifikatzen dutena, eskapu egiten diote zaharren berbeta moduari⁵.

Halaber, egungo gizartean familiari, hezkuntzaren ardurari dagokionez, kendu zaion garrantziak zerikusi zuzena lezake auzi honetan. Hau da, hizkuntza-mailak eta hizkuntzak bete beharko lituzkeen funtzioak sailkatze berean, honelako adjektiboak ezarri ditugu: jaso, neutroa, kolokiala, familiarra, behe-maila. Sailkatze horretan familian, lagun-artean eta, oro har, erregistro ez-formaletan erabili beharreko hizkuntza erregistroa gutxietsi egin dugu, artean euskarak betetzen ez zituen funtzioetara hedatu nahian. Eta hara, orain non dugun gabezia, hain zuzen behe-maila izenez bataiatu ditugun erregistro horietan.

Euskarak, dagoeneko, goi-mailako funtzioak bete ditzakeela erakutsi du, arlo horretan asko normalizatzeke egon arren. Baina, euskara jaso hori

⁴ K. Zuazo (2000).

⁵ Amorrortu (2003); Ikastoletako proba idatziak ebaluatu zituen lan taldea (2002).

adinean aurrera egiten den neurrian jaso beharko litzateke. Beharbada, oso altu jarri diegu langa ikasleei euskarak goi-mailako funtzioak bete ditzala erakustaldi-saio azkarrean, hain da handia jauzia –etxeko eredutik eskolako eredura–. Ez gara konturatu, ordea, testuinguru formaletarako funtzioak betetzeko erregistro bakarra nahikoa dela –neutroa–, eta adinean gora egin ahala neutrotik jasorako jauzia egin ohi dela. Gaur egun, hain zuzen, erregistro horiexetan moldatzen gara ondoen, eta horiexek ez beste erakusten dugu, beste erregistroei ez ikusiarena edo entzungor eginda behe-mailakoak direlakoan.

Bestalde, erdararen interferentzia gero eta nabarmenagoa da euskaldunen artean. Gaztelaniak naturaltasunez betetzen ditu egun behe-mailako funtzio horiek leku askotan. Ikusi besterik ez dago nola lerratzen diren gaztelaniara euskaraz hazi eta hezi diren haur euskaldunak.

Oso kezkarria da adierazkortasuna, bizkortasuna eta esan-indarra⁶ bilatzen dugunean gaztelaniara jotzeko dugun ohitura. Joera hori azkartzen ari da belaunaldiz belaunaldi. Funtzio horiek gaztelaniaz betetzearekin batera, gauza horiek berak euskaraz adierazteko gaitasuna galtzen ari gara etengabe. Herri euskaldunetan jende adindua gai da bere berbaldi osoa euskaraz moldatzeko, gaztelaniara ia jo gabe. Gaitasun hori zeharo ahulduta dago ondorengo belaunaldietan eta, zorigaitzez, ez dirudi euskaraz eskolatutako neska-mutilen artean errekuperatzen ari denik.

Egoera horri buelta ematen hasi nahi badugu ikasleei, etxetik dakienari zein ez dakienari, ahalik eta eredu gehien erakutsi behar zaie, ahalik eta erregistro gehien. Euskara etxetik dakarrenari etxekoa estimatzen, prestigiatzen, onesten, onartzen bultzatzen lagundu behar zaio; eta etxetik ez dakarrenari euskararen eredu familiar bat eman beharko zaio. Hortik aurrerantzean, batari zein besteari, eredu familiar batetik eredu estandar eta jasoago baterako urratsak egin beharko dira.

Horrez gainera, eskolan hizkuntzaren erabilera noiz den formala eta noiz ez-formala zehaztu behar da eta horren araberako trataera eman.

⁶ Ustez, A. Egaña da terminoaren asmatzaila.

2. HIZKUNTZAREN BARIAZIOA ETA ERREGISTROAK

Gorago aipatu denez, erregistro bakarra besterik ez darabilte gazte askok eta gabezia horretatik datozke, besteak beste, euskararen kalitate eskasa eta egoera eta esparru ez formaletan erdaraz aritzea. Egoera hori irauli nahian, lehenik eta behin, bi kontzeptu horiek zer diren ondo ulertzea ezinbestekotzat jotzen dugu eta, bigarren pauso batean, egoera eta esparru ez formaletan erabili beharreko erregistro hutsunea nola bete proposatu nahi dugu, ezer berririk asmatu beharrik ez dagoela azpimarratuz eta dagoeneko erregistro ez formal hori ondo garatuta duen hizkera eredu kontuan hartuz Ikastolako erabilera esparruetan, betiere bakoitzaren ingurune sozio-linguistikoaren arabera.

2.1. Hizkuntzaren bariazioa

Hizkuntz gaitasuna funtzio baten arabera definitu da, hots, hizkuntza jakitea berori zuzen eta egoki erabiltzea da. Zuzentasuna gramatikari legokioke eta egokitasuna testuinguruari.

Ahozkoari gagozkiola, gramatika hizkuntzaren erabiltzaileen gogoetan dauden arau multzoek osatzen dute, hau da, hiztunek daukaten mekanismoa zeinaren bidez hizkuntza-gaitasuna aktibatu eta martxan abiarazten baita.

Egokitasuna gramatikak ematen dituen molde zuzenak egokiro erabiltzea bada, ezin gal daitezke begi bistatik erabilera egoera desberdinetan aukera egiteko kontuan hartzen diren faktoreak. Batetik bariazioaren arazoa dugu. Euskara batuaren izenean sarri askotan hizkuntzaren bariazioa eta bariabilitatea ukatu izan dira. Baina gaur egun hizkuntzalarien eta hizkuntzaren didaktikarien artean nahiko onartua den hatsarre honen barruan, hiru esparrutan sailka daitezke aldaketa horiek:

- Bariazio diatopikoa geografiaren arabera gertatzen diren hizkuntza aldaketei dagokie.

- Bariazio diastratikoa, aldagai sozialen arabera gertatzen dena.
- Bariazio diafasikoa, hiztunak berak dauzkan erregistroen arabera dauzkan aldaerak.

Hizkuntzaren bariazioari eragiten dioten faktoreak era askotakoak dira; batzuk **barne faktoreak** dira eta beste batzuk **kanpo faktoreak**, edo nahiago bada, intralinguistikoak eta paralinguistikoak. Hitztunak molde linguistiko batzuk edo besteak aukeratzen ditu kanpo faktore horien arabera eta testua egokitzen du. Jakina, aukeraketa hori egin ahal izateko zer aukeratu eduki behar da, bestela hiztunak beti bat egingo du egoera komunikatibo guztietan.

Kanpo faktoreak: hiztunak testuak egokiro erabiltzeko hizkuntz formak aukeratzen ditu kanpo faktore batzuen eraginpean. Horietariko batzuek mintzakidearen egoera psikologikoaren berri ematen digute; euron bidez jakin dezakegu pozik, haserre, triste edo zelan dagoen, baita ez duela bere egoeraren berri eman nahi ere. Aldagai sozialek ere baldintzatzen dute hizkuntz formen aukeraketa (adina, sexua, maila soziala, hezkuntza soziala). Faktore pragmatikoen arabera molde batzuk hautatu eta beste batzuk baztertuko dira (norekin, non, zein testuingurutan, zer lortu nahi den). Baldintza kulturalak ere zerikusia dute (amankomunak ditugun ezaupideen arabera).

Hizkuntzaren **barne faktoreak:** zatitze dialektalarekin eta normalizazio mailarekin lotzen dira.⁷

Behin eta berriz esaten aritu gara gazte askok erregistro bakarra besterik ez dakiela, kasu askotan zer aukeratu gutxi dutela eta abar. Hasi gaitezen, bada, erregistroak zer diren esaten eta noiz erabiltzen diren batzuk eta besteak.

2.2. Erregistroak

Lehenik eta behin argitu dezagun zer den erregistroa. EUSKALTERMen arabera, *solaskideen arteko harremanen, baien asmoen, gaien, formaltasun-mailaren eta egoera definitzen duten beste hainbat faktoreren eraginez erabiltzen den hizkera. Hitztun bakoitzak erregistro ohizko edo lehenetsi batzuk izaten ditu eskueran.*

Espainiako RAEren arabera, *berriz, modo de expresarse que se adopta en función de las circunstancias.*

Beraz, badakigu hizkera desberdinak erabiltzen ditugula zirkunstantzien arabera, besteak beste honako faktoreak hartu ohi ditugula kontuan: solaskidea, asmoa, formaltasuna eta abar. Jakina, faktore horietako bakoitzak ezaugarri desberdinak izan ditzake, zedarritu ezinezkoak, egoerak, hiztunak,

⁷ Gaminde eta Goikoetxea (2003).

asmoak eta testuinguruak askotarikoak direlako. Horrenbestez, kontestua osatzen duten elementuak (NORK, NOREKIN, ZERTAZ, ZERTARAKO, NOLA... aritu alegia) baldintzatzen dute erregistro bat ala beste erabiltzea. Dena den, erregistroa ez da ulertu behar gauza finko eta egonkor gisa, bi muturren artean gauzatutako continuum bat bezala baizik. Teorizazio gutxi egin den arren, **jakin badakigu zenbait aldagai badirela aukeran, erregistroa osatzen laguntzen dutenak, esaterako:**

a. Hitzunaren ezaugarrien araberako aldaerak. Multzo bi bereizi behar dira⁸:

- Geolektoak. Hitzunaren jatorri geografikoaren araberako aldaerak.
- Soziolektoak. Hitzunaren kultur eta gizarte ezaugarrien araberako aldaerak. Hauek ere era askotara sailka daitezke, esaterako, hizkuntzaren zaintze neurria har dezakegu irizpide:
 - Goi-mailakoak. Maila honetako soziolektoei hizkera zaindu, landu eta jaso ere esaten zaie. Hitzun ikasiak bakarrik heltzen dira hizkuntza aldaera hauen jabe izatera.
 - Erdiko mailakoak. Hizkuntza arauak betetzeari garrantzi handia ematen zaio maila honetako hizkeretan, baina, aldi berean, hitzun gehienek erraz samar ulertzeko moduko hizkerak izaten dira.
 - Behe-mailakoak. Hizkera arrunt eta arduragabe ere esaten zaie. Hitzun ikasigabeekin eta gizartean onarturiko hizkuntza arautik kanpo dagoenarekin loturiko soziolektoak dira.

b. Gaiaren arabera. Oinarrizko banaketa hauen artean gertatzen da:

- Gai orokorra. Aparteko jakintza berezirik eskatzen ez duena. Edozein hitzuntentzako modukoa, hizkera, arrunta, sintaxi librea, subjektiboagoa...
- Gai espezifikoa. Gai jakin batek eskatzen duen zehaztasun lexikoa, esamolde bereziak, formulak, sintaxia... . Teknizismoak, kultismoak, sintaxi konplexuagoa, abstrakzio maila handia, objektiboagoa...

Garbi dago hartzaileak ere baldintzatzen duela gaiaren garapen-modua. Ez da gauza bera enuntziatzailea eta hartzailea maila berekoak direnean edo hartzailea maila apalagokoa denean.

c. Formaltasun-mailaren arabera. Harreman sozialarekin lotuta dago eta, beraz, seriotasunez eta handikiro aritzetik etxekotasun eta konfiantza

⁸ Larrinaga (2001).

handiengan jardutera lihoake mailaketa hori. Kontuan hartu behar da, besteak beste, hizkuntzaren erabilera jendeurrekoa den (klase-emankizuna, eskola-kontseilua, klaustroa...) edo maila pribatuan (lagunartean...) gertatzen den, hartzailea nor den (gurasoak, administrazioa...), etab.

- d. **Kanalararen edo bidearen arabera.** Errealitatean askotariko egoerak izan daitezke (ahoz gora irakurtzeko testuak, testu idatziak baina bat-batekoak balira bezala ahoskatzeko, deklamatzeko, errezitatzeko...). Hala, ondorengoak bereizi daitezke:
1. Ahozkoa. Bat-batekoa, berehalakoa, iragankorra, informazioa bururatu ahala hautatua, testuaren egitura irekia (digresioak, errepikapenak, norabide aldatzeak...), kohesioa neurri batean doinuerak eta erritmoak bideratua....
 2. Idatzizkoa. Landua, prestatutakoa, diferitua denboran, iraunkorra, koherentiaren eta kohesioaren kontrol handia eta lokailuek bideratuta, sintaxi konplexua, lexiko zehatzagoa, keinurik ez...
 3. Mistoa. Testuaren egitura planifikatua, informazioa zorrozki hautatua, kohesioa lokailuek bideratuta...
- e. **Xedea.** Hiztunak mezu baten bidez hartzaile(ar)en uste, jarrera zein jokabidetan eragin nahi duena. Izan ere, nekez hartu ohi dugu hitza informazioa trukatzeko soilik. Gure hizkuntza-ekintzek xede jakin bat izan ohi dute, informazio trukaketa aseptikotik gorakoa, jeneralean: hartzaileari barre eragiteko, hartzaileak geure ideiez bat egin dezan, geure burua zuritzeko, hartzailea emozionatzeko, zerbait eros diezaguten... hitz egiten dugu eta idazten dugu, ez informazioa emateko soilik. Komunikazioa da, eta ez informazio-trukea, gure hizkuntza-ekintza gehien-gehien xedea⁹.

Aipatu ditugun barne- eta kanpo-faktore horien aukeraketa eginez ekoizten dugu hizkuntza, eta hala ekoiztakoaren arabera **hizkuntza-mailak** eta **hizkera motak** bereizten ditugu. Hona hizkuntza-mailen sailkapen bat, hain zuzen Ibon Sarasolak Euskal Hiztegian egin duena:

- i. **Goikoa.** Lehengo argitaraldiko “literatura hitzak” eta jasoak biltzen dituen.
- ii. **Neutroa.** Berri kazetaritzan erabiltzekoa, adibidez. Gure ustez, eskolarako ondoen heldu dena.

⁹ Garzia (1999).

- iii. **Behekoa.** Lehenagoko hitz ‘herrikoiak’ eta ‘lagunartekoak’ hartzen dituen.
- iv. **Arrunta.** Gizabidearen arauak gaitzesten dutena.

Hizkera motak, Hezkuntza Saileko IRALE zerbitzuaren iritziz, honela bereizten dira:

- a. **Hizkera kolokiala.** Familia eta lagun arteko tratuan erabiltzen du hiztunak, eta, besteak beste, ezaugarri hauek ditu: adierazkortasuna “dzapart egin zidan lepora” (adierazkortasun funtzio hori du onomatopeiak), adiskidetasuna (hika hitz egitea), arrunkeiak esatea (kriston, idiarena jo, atxurra harrapatu...), silabak jatea (einbiau...), makulu asko (ze, tira, ba, ...) eta hainbat gehiago. Azken batean, lasaitasun eta adiskidetasun giroak biltzen gaituenean erabiltzen den hizkera azkar, bat-bateko eta arduragabe hori da hizkera kolokiala.
- b. **Hizkera estandarra edo orokorra.** Hiztun guztiek ulertzeko moduko hizkera izan behar du. Kolokiala baino formalagoa da, baina ez jaso bezain formala. Ez du eskatzen teknizismo eta aparteko jakintza gradu berezirik. Halaber, malgua da oso, egoeraren arabera erraz moldatzen da, eta formaltasun gradu ezberdinak hartzen ditu. Hizkera-maila hau da guztietan neutroa.
- c. **Hizkera espezifikoa.** Gai jakin baten inguruan egiten den hitzaldi tekniko batek biltzen du hizkera espezifikoa. Terminologiak zerikusi handia dauka hizkera teknikoarekin, hain da zehatza eta zurruna.
- d. **Hizkera jaso.** Hizkera formalari dagokio. Zuzentasunari eta zehaztasunari ematen zaio garrantzia: ahoskera zaindua, egokitasun gramatikala, zuzentasun ortografikoa, eta lexiko zabal eta zehatza.

Erregistroen gorabehera honetan, berau ere continuum lektal baten gertatzen direla onartuta ere, mota nagusi bi bereiztu dira: batetik **familiarra** (intimoa eta lagunartekoa) eta bestetik **ez familiarra** (kausala, formal jaso edo neutroa eta erritualizatuak).¹⁰

Batzuen eta besteen ezaugarriak desberdinak dira eta hemen hizkuntz formei gagozkie hau esatean. Erregistro ez familiarrek hurbilago egon

¹⁰ Gaminde eta Goikoetxea (2003).

daitezke eredu idatzietatik familiarrak baino. Jarraian hizkuntzaren alde formalen arabera, familiartzat eta ez familiartzat hartzen ditugun ezaugarri batzuk zerrendatuko dira.

Fonologia. Eredu familiarren ezaugarri fonologikoetan, kontrakzio bortitzak, ahoskera ardurabakoa, intonazio eta azentu aldaketa aberatsak eta euskalki batzuetako palatalizazio adierazgarria aipa daitezke.

Kontrakzioen esparruan, gramatika arauk eraginekoak eta erregistroak eraginekoak bereiztu egin behar dira. Hiztun batek “eskue” eta “ogidxe” modukoak esaten baditu, horkoa ez den hiztunarentzat bitxi-edo gerta daitezke, are bitxiago euskara idatziaren aldean; hala ere, aldaketa horiek ez dira estilistikoak, ezpada gramatika arau zehatz batzuen arabera gertatutakoak. Aitzitik, Lekeitioko “emoteontzo” erabiltzen da batzuetan eta “emoten dotzo” beste batzuetan, lehena aldaketa estilistikotzat jo dezakegu, familiarragoa da bestea baino. Kontsonanteen galeren ondorioz, batzuetan komunikazioa oztopatzen bada, hiztunak forma osoagoak ematen ditu errepikatzean; hots, eskuarki “on”, “in”, “omon”, “erki” e.a. erabili baditu, hor agertzen diren aldaketek komunikazio etena badute, hiztunak badaki “eon edo egon”, “egin”, “emon”, “ederki” esaten eta errepikatzean azkenok erabiltzen ditu.

Intonazio eta azentu aldaketa aberatsak egiten dira eredu familiarretan, betiere kontuan hartuta gramatikak zer nolako erabilera egiten duen. Azentuaren bidez esangurak bereizten ez diren barietateetan, ostera, intonazioaren erabilera askozaz aberatsagoa izaten da.

Morfologia. Alor honetan eredu familiarretan gramatika sintetikoagoa izaten da ez-familiarretan baino; sinpletasun horren marka bat izaten da partizipio ez-jokatu edo aditz izenen bidez egitea esaldiak menderagailuen bidez egin beharrear; bestalde juntagailuak ere askozaz gehiago erabiltzen dira menderagailuak baino.

Testu askotan, bizitasuna gordetzeko aditzak ez dira jokutzen eta juntagailuen bidez koordinatzen dira. Esaldi eta molde adierazgarriak erabiltzen dira eredu familiarretan eredu ez-familiarren molde neutro eta formalen aldean.

Elipsia da eredu familiarren beste ezaugarri garrantzitsu bat; elipsi batzuek gainera auresuposizioak gordetzen dituzte (*aita-eta etorri dira, hangoak-edo dira, bai edo!, egin dut baina, hamarretan etxean gero!*).

Beste zenbait ñabardura esaldiaren elementu batzuen ordena logikoa edo ez markatua aldatuz lortzen dira (seme *neurea!*, *polita da sano...*).

Tratamenduen erabilera ereduaren familiartasun mailaren adierazgarririk ezagunena da. Betiko “ez duk eta baduk” eta “ez dun eta badun” izeneko tratamenduekin batera, forma landuagoen erabilera ikertu eta zehaztu barik geratzen da sarritan: nor zara / nor zaitugu, nahikoa da / nahikoa duzu, banator / banatortsu, badakit / badakitsut.


Lexikoa. Eredu familiarretan erabiltzen dugun lexikoaren ezaugarrietariko bat da maileguen erabilera berezia; berezitat hartzen dugu ahoz korritzen duten bikote lexikal batzuen erabilera (hartu /koiu, gela /kuartua).

Lexiko afektiboa eredu familiarren ezaugarria dugu; hauen artean amultsuki erabiltzen diren hitzak koka ditzakegu eta baita ume txikiekin erabiltzen den lexiko osoa ere, jolasen lexiko adierazgarria barne. Beste alor batzuetan kortesia formulak, esklamazioak-eta argotaren lexikoak ditugu.

Ezinbestekoa da, gure ustez, esparru horietako hizkuntz formak biltzea, haien erabilera ikertzea eta era didaktiko batez zabaltzea.

	Familiarra	Ez-familiarra
Fonologia	Kontrakzioak Intonazio eta aldaera aberatsak Ahoskera ardurabakoa Palatalizazio adierazgarriak	Berba osoak (arau fonologikoak beteaz) Intonazio monotoagoa Ahoskera arduratsua
Morfosintaxia	Gramatika trinkoa Aditz ez-jokatuak Esaldi eta molde adierazgarriak Elipsiak Hitz-ordenaren aldaketak Tratamendua: hitanoa	Gramatika ugariagoa Aditz jokatu gehiago Molde neutroak eta formalak Elementu gehiagoren edo guztien agerpena Tratamendua: zu, berori
Lexikoa	Mailegu gehiago Bikote lexikoak Eremu semantikoaren muga lanbroak Lexiko afektiboa, kortesia formulak, esklamazioak Argota	Lexiko zehatzagoa, berezitua Lexiko teknikoagoa Teknolektoen hitzak

Orain arte ereduaren gainean esandakoak lerro horizontal batera ekarriko bagenitu honela adieraziko genuke:



2. irudia

Goiko irudia baliatuz, konturatzen gara neutrotik jasora bitarteko esparru hori euskara estandarrean betetzen dugula, batua izan edo euskalkiaren eredu estandarra izan. Hutsunea, ordea, irudiaren ezkerreko zatian azaltzen zaigu, hizkuntz eredu horrek edo hiztunak ez badauka erregistro familiarrik.

3. EUSKARAREN TRATAERA TEORIKOA ESKOLAN

Eskolako euskararen trataera zehazteko, dokumentu asko erabil daitezke erreferentzia moduan, baina guri interesatzen zaigu txosten honetan argitzea erregistro desberdinak landu behar direla eskolan, eta erregistro formalean eta informalean zein hizkuntza eredu edo aldaera erabili erabakitzen laguntzea. Ez da txosten honen asmoa euskara batuaren eta euskalkiaren artean hautua bultzatzea, hain zuzen alderantzizkoa erakutsi nahi dugu, biak uztartzeko modua egin behar dela.

Horretarako, hainbat alderdi hartu behar dira kontuan, linguistikoak, soziolinguistikoak, pedagogikoak eta abar. Euskararen trataera teorikoaren inguruan jarduteko, dokumentu desberdinak iruzkinduko ditugu.

Orain arte esandako guztien artean, gabezia nabarmen bat azpimarratu dugu behin eta berriz, erregistro ez-formala landu beharra hain zuzen. Erregistro ez-formal hori gehienbat ahozko kodean gauzatzen da, eta hain zuzen ahozko komunikazioak pisu handia hartu du, besteak beste, Curriculum diseinu guztietan.

Hemendik aurrera, kontrakoa esaten ez den bitartean ahozko kodeaz ari garela ulertu behar da. Batez ere ahozko esparrua da jorratu nahi duguna.

3.1. Erregistro formaleko ahozko euskara. Hizkera zaindua.

Lehenengo adierazpena Euskaltzaindiarena da, euskara batuaren ahoskera zainduaren ingurukoa hain zuzen. Bertan hainbat baieztapen aurkituko dugu erregistro formal eta informalean gainean, lan honekin bultzatu nahi dugun ildoarekin bat datozenak. Arauaren sarreran esandakoek ederki zehazten dute euskara batuaren hasierako esparrua zein izan zen eta zertarako:

Arantzazuko Biltzarrerako prestatu zuen txostenean, **Euskara Batua euskara idatzirako zela mugatu zuen Koldo Mitxelena eta, euskara**

idatziaren barrutian, irakaste lanetarako. Irrati eta telebista euskaldunak ditugunetik bereziki ahoskeran ere batasunerako irizpideak ematea beharrezko iruditzen zaio bati baino gehiagori. Eskari horri erantzunez ematen ditu ondoko arauak Euskaltzaindiak, **beti ere gogoan izanik hizkera zaindua, maila jasokoa, erabili behar denerako direla, irrati-telebistetako berri-emanaldietarako, jendaurreko hitzaldietarako, eskolako azalpenetarako eta horien antzeko egoeretarako.**

Bertan dioenez, hizkera zaindua, maila jasokoa, jendaurreko hitzaldietan eta eskolako azalpenetan erabiltzekoa da, baina segidan gogorarazten digu horrezaz gai ahoskera bizia ere irakatsi egin behar dela.

(...) Euskara Batuaren ahoskera zaindua (EBAZ) **ahozko hizkuntza estandarra izango da, alegia hitzun ororen erreferentzia tresna, hizkuntzaren maila formaletan erabili beharko dena.** EBAZ ez da orain arteko hizkeren ordezkotzat hartu behar, osagarritzat baizik. Ez da Euskara Batua ahoskatzeko modu bakarra eta are gutxiago, noski, euskalkiak ahoskatzeko era. Besteak beste, **horrek esan nahi du EBAZ ingurukoaz edo irakaslearen ahoskera biziak gainera irakatsi beharko dela eta ez haren orde.** (...)

Arau hauek nola ulertu behar diren dioenean, aurreko atalean behin eta berriz azpimarratu dugun kontua aipatzen du hemen ere, testuingurua kontuan hartuz hizketa egokitu egiten dugula alegia.

(...)2. Bada hizkuntzaren bizi-iturri den aniztasunaren beste alderdi garrantzitsu bat: hitzun bakoitzarengan gertatzen dena. Hizkuntzaren funtsezko ezaugarri da, izan ere, hizketa gertatzen den egoerara, gai duen edukiari, entzulearen ezaugarriari, hizketa-lagunen arteko distantziari eta abarri egokitzea. Horregatik, hizketa egokia hizketa malgua da: ahoskerari dagokionez oso garrantzitsua da (eta erabat beharrezko EBAZak euskara aberastuko badu) ongi ulertzea euskaraz ere, beste edozein hizkuntza osotan bezala, **ez dela berdin ahoskatu behar testu akademiko baten jendaurreko irakurketan eta adiskide edo senideekiko elkarrizketan, berrien mikrofono aurreko aurkezpenetan eta ama eta haurren arteko elkarrizketan.** EBAZen lekua lehenengo erabilera horietan dago ez bigarrenetan.

Alabaina, garbi zehazten denez, ahozko kodean malgu jokatzeak ez du esan nahi hori aitzakia denik euskararen aldaera guztietan izaten diren ahoskera guztiak nahasteko berbaldi batean.

(...) Beraz, ahoskera malgua eta askotarikoa dela esatean ez da esan nahi edozein nahaste egokitzat ematen dela. **Hizkera zainduenetik (EBAZrako arauak erabiltzen dituenetik) informalagoetarainoko mailaketa euskalkietan barrena egingo da.**(...)

3.2. Euskaltzaindiaren adierazpena euskalkien inguruan. Lagunarteko hizkera

Lezamako adierazpenean, berriz, alor bakoitzeko zenbait irizpide eman zuten Euskaltzaindiak, 2004an. Guztiak hona aldatu beharrik ez, eta bakarrik irakaskuntzari dagozkionak ekarriko ditugu:

4. Irakaskuntzan

Hezkuntzan, gutxienez, erregistro biren erabilera behar du lekua: lagunartekoak eta landuak (eskolari zuzen-zuzenean dagokionak), betiere gogoan izanik ahozkoaren eta idatziaren arteko bereizketa. Izan ere, hezkuntzaren zereginik behinenetariko bat ikasleei hizkuntzaren erabilera ahalik eta trebetasunik handiena ematea da: hizkuntza aberatsa eta egoeraren arabera. Horiek horrela, ondorengo urrats hauek izan beharko lirateke kontuan:

4.1. Euskalkiek euren nortasuna dute, eta hezkuntzan jagon egin behar dira euren osagai esanguratsuak nahiz hizkuntzan betetzen duten funtzioa, betiere idatzizkoaren eta ahozkoaren arteko desberdintasuna kontuan hartuz eta batasunerako arauak betez.

4.2. **Lagunarteko hizkera** –gehientsuenean behinik behin–, euskalkian edo azpieuskalkian oinarritzen dela gogoratu behar da; eta **landua, ostera, euskara batuan edo euskalkiaren erabilera landuan**. Horrenbestez, hezkuntza-komunitateak, egoeraren arabera, beharko du bideratu hezkuntza-prozesu bakoitzari dagokion erregistroa, batez ere lexikoan eta esapideetan.

4.3. **Irakasleak hezkuntza-jardunean aritzeko, gomendagarria da hizkera landuaren eta lagunartekoaren jakitun egotea**. Horrela, lagundu ahal izango dio ikasleari hizkuntzaren erregistroen erabilera-esparruetan. Horretarako ere, ezinbestekoa da irakasleen berariazko trebakuntza.

4.4. Umeei dagokienez, Euskal Herriko **haurren jatorrizko hizkuntza aintzat hartuta** –betiere helburua euskaldun osoak sortzea izanik–, metodoaren aldetik, hots, ikasgela eta ikasmultzo berean

jardunik, **guztiz mesedegarria da haurren hizkuntza gaitasunaren araberrako jardunbideak lantzea.**

4.5. Helduei dagokienez, euskalduntzea eta alfabetatzea bereizi beharko lirarteke; lehen kasuan, euskalduntzean, zerotik abiatzen delako ikasprozesua eta, bigarren kasuan, alfabetatzean, ikasleak dakienetik ez dakienera delako ikasprozesua.

Gogoan hartzeko moduko irizpideak dira horiek, teorikoak bai, baina errealitateari lotzen zaizkionak.

Ikus dezagun orain dokumentu didaktikoetan zer proposamen egiten den kontu horiek jorratzeko.

3.3. Oinarrizko Curriculum Diseinua

Ondoren datorrena Eusko Jaurlaritzako HUIS-ek 1992an argitaratu zuen *Oinarrizko Curriculum Diseinua*. *Haur Hezkuntza* liburutik hartu dugu, baita egile berarena den *Oinarrizko Curriculum Diseinua*. *Lehen Hezkuntza* liburutik ere. Aipatu curriculum diseinuak arrasto nahikoa ematen digu nola jokatu behar dugun eskolaren hizkuntzaren trataera zehazteko.

Haur Hezkuntzako OCDan ageri denez, **Ikastetxearen Curriculum-Proiektua egiterakoan irakas-taldeak adostasuna erdietsi behar du puntu batzuetan, eta haien artean hizkuntzaren trataera zehaztu behar da, hartarako «inguru eta ikastetxearen egoera soziolinguistikoa kontuan hartuz (...))».**

Helburu orokorren artean atalean honakoa irakur daiteke, beste xede batzuen artean:

h) Hitzezko lengoaia ohizko komunikazio egoeretara egokitzuz erabili, besteek diotena ulertzeko eta ulertua izateko, beren ideia, sentimendu, esperientzia eta desioak adierazteko, esanguren eraikuntzan aurrera egiteko, norberaren jokabidea arautzeko eta besteenean eraginik izateko.

Haur Hezkuntzako lehenengo zikloaren (0-3 urte) ezaugarriari buruz ari denean honela dio:

Lehen ziklo honen ezaugarriarik nagusiena familiak duen eraginaren garrantzia da. Hezkuntza zentroak familiaren osagarri bezala jokatu behar du (...). (...) Ziklo honetan ezinbestekoa da familia eta hezkuntza zentroaren arteko elkarlana, zeren beharrezkoa da etengabeko informazio trukeari eustea eta elkarrekin akordioetara iristea hezkuntza jarduera aurrera eraman nahi bada.

Eskualde euskaldunetan bertako hizkera aintzat hartu beharra ere aipatzen da:

Eskolako hizkuntza bertako hizkerara egokituz zona euskaldunetan, eta pixkanaka euskara batura hurbiltzeko mekanismoak ezarritz.

Haur hezkuntzaren bigarren zikloaz (3-6 urte) hauxe dio:

Aurreko zikloaren ikusmolde pedagogiko berberari eusten zaio, jarduera, jolasa, behaketa eta esperimentazioa ahalbidetuz, bai banaka, eta bai taldeka ere.

Hezkuntza interbentziorako orientabideetan, **ahozko mintzaira** dela eta, honakoa irakur daiteke:

Garrantzitsua da haurrek komunikatzeko gogoia eduki dezaten eta espontaneitate eta konfiantzaz komunikatzea, horretarako hezitzaileek eta eskolako gainontzeko pertsonalak interesez hartu eta entzuten dietela sentitu beharko dutelarik.

Haur hezkuntzako edukiak zerrendan jartzean, jarrerai dagokienez, honako hau ageri da:

- a. Beste hizkuntza eta euskalkietan mintzatzen diren pertsonetikiko errespetua.
- b. Familia eta gizarte inguruan erabiltzen den euskalkiarekiko jarrera positiboa.

Lehen Hezkuntzako Curriculum Diseinuan, berriz, haren iturburu soziologikoa esplikatzen delarik, adierazten da eskolak bere inguruko gizarteak onarturiko balioak eta jakintzak transmititu behar dituela. Etapa hasteko orduan, **ikasle guztiek ez dute izango abiapuntu bera, eta horren arabera egokitu beharko da irakaslana, kontuan hartuz, gainera, ahozko hizkera dela idatziaren oinarria:**

(...) eskolak garrantzizko eginkizuna du ahozko hizkuntzaren garapenean Lehen Hezkuntza zehar: erraztu egin behar du ikasleek ahozko hizkuntzaren erabilera formalagoari dagozkion komunikazio-trebetasunak lortzea. Horretarako, ikasle bakoitzak duen ahozko hizkuntzaren mailatik abiatu beharra dago erabilera zabalago eta sakonago bat iradokitzeko, trukeak bultzatzen dituzten egoerei indar emanez, non ahozkoa komunikazioaren oinarri izango den. Egoera hauek izango dira

abiapuntu ahozko hizkuntzaren erabilera formaldugo, landuago baten garapenera zuzenduriko lana planifikatzerakoan.

Orientazio didaktiko eta ebaluaziorakoak atalean, berriz, hau irakur daiteke:

Ikasgelan beharrezkoa da ikasleek beren ingurunean erabiltzen dituzten hizkuntzaren barianteak errespetatzea, zeren eta ikasleak erabilitako hizkuntza baliozkoa gertatzen baitzaio normalean dabileneko egoera guztietan. Irakasleak planifikatu egin beharko du lana, ikasleak bere adierazpena komunikazio-egoera sail bariatu batera egoki dezan.

Hizkuntzaren trataerari dagozkion berriarazko orientazio didaktikoetan, aldiz, honela dio:

Curriculum-diseinu honetan, ahozko hizkuntza estudio-gaitzat hartzen da eta hori den heinean plangintza eta sistematizazio bat eskatzen du irakasle-ekipoaren aldetik. Ahozko hizkuntza eduki-multzoak determinatu dituzten komunikazio esparru guztietan landu beharko da (pertsonarteko harremanak, komunikabideak, literatura eta ikaskuntza), aho-testuak hautatuz, zeinak etapa honetako ikasleentzat egokiak gertatzen diren.

Eskolak onartu beharra dauka haurrak Lehen Hezkuntzara ekartzen duen ahozko gaitasuna, bai hizkuntzazkoa eta bai komunikaziozkoa eta hedatu, garatu eta sustatu egin behar du gaitasun hori, komunikazio-estrategia diferentek eskatzen dituzten egoera ezberdindutan sartuz, barietara molda dadin.

Batetik, beraz, ahozko hizkuntza estudio-gai hartzen da, eta bestetik, ikasleak Lehen Hezkuntzara dakarren ahozko gaitasuna onartu behar da.

Ahozko diskurtso motaz, ostera, honela ikus dezakegu OCDan (besteak beste, hizkuntza maila edo erregistro desberdinen landu beharra adierazten dela):

Ahozko testuen barruan, batez ere Lehen Hezkuntzaren hasieran, garrantzi berezia hartzen dute elkarrizketak eta berriketaldiek. Testu hauek dira arloko lanaren abiapuntua, izan ere derrigorrezko irakaskuntza sartu aurretik haurraren bizitzan izan duten nagusitasunak taxutu baitio ordura arteko hizkuntza gaitasuna.

Eskolan, hizketarekiko lana funtsezko bi esparrutan biltzen da: pertsonarteko harremanean eta irakaskuntzarenean.

Pertsonarteko harremanetan hizkuntza eta adierazpen baliabideak komunikazio egoera konkretura egokitzearena bezalako alderdiak

lantzeko balioko du hizketak. Adibidez, azter bedi nola erabiltzen den erregistro kolokialago bat bere lagunekin hitz egitean eta zainduago bat nagusi batekin hitz egiten bada (...).

Etapan zehar beste aho-testu batzuek hartzen dute garrantzia. Horrela, debate eta asanbladek ikasleen argudiaketa-gaitasuna eta besteekiko ahozko komunikazio-elkartrukean erregela elkarreragileen jabekuntza garatzeko balio dute (...).

Aipatu OCDa ikasketa esanguratsuaren teoria oinarriturik dago eta hala, honakoa ageri da:

Oinarrizko Curriculum-Diseinu hau blaitzen duen teoriak eta (...) logikoa dirudi, arau orokor bezala, konkretuari lehenago kontu egitea abstraktuari baino, sinpleari konplexuari baino, hurbilekoari urrunekoari baino, (...) Ikasketa esanguratsuaren eraikuntza burutuko bada ikasleen garapen intelektual eta aurretiazko ezagueretatik abiatu beharko da irakaslea.

Bi ideia azpimarratzen dira hor, gizarte inguru euskalkidunei dagokienez: hurbilekotik hasi (euskalkitik) eta urrutikora (euskara batura) iritsi behar dela, eta bidea ezarian egin behar dela, jauzi handirik egin gabe.

Azkenik, ebaluaziorako orientazioak aipatzen direnean, abiapuntua zehazten da, bai eta ikasleak lehendik dakienaren garrantzia azpimarratu ere:

Irakaskuntza-ikaskuntza abiarazteko edo hezkuntza prozesua bultzatu eta birsendotuko duten fase berriei ekiteko abiapuntua esparru eta egoera ezberdinetako komunikazio-trukeetan haurrak pixkanaka eraiki dituen aurretiazko ezaguerak zeintzuk diren ikertzea da.

3.4. Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculumaren proposamena

Oraingoan, berriz, Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculumaren proposamenean Komunikatzen *Ikasi* konpetentzia orokorrean zenbat eta nolako lekua eskaintzen zaion ahozko komunikazioari ikusiko dugu.

“KOMUNIKATZEN IKASI”

Komunikazioa giza harremanen oinarria da. (...) Komunikazioa eta kultura ikaskuntza prozesuen emaitzak dira, eta gizakiek hainbat ingurunetan garatzen dituzte prozesuak: familian, eskolan, hedabideetan, eta bizitzako une guztietan. Eta hori egiteko, hizkuntza naturaletako hitzezko hizkuntza (ahozkoa edo idatzizkoa) ... erabiltzen dituzte.

Zalantzarik gabe, hitzezko hizkuntza, ahozkoa nahiz idatzia, giza komunikaziorako baliabide nagusia da, (...).

1.2.1. Ahozko hizkuntza

Ideiak, iritziak, bizipenak eta sentimenduak trukatzean eta errealtatearen adierazpena eraikitzean, ahozko hizkuntza jario-kortasunez, sormenez eta eraginkortasunez erabiltzea eta ahozko komunikazioaz gozatzea, identitatea egituratzeko, pertsonen arteko komunikazio ona lortzeko, ezagutza eskuratzeko aukera izateko eta parte hartzen duen gizartearen kultura partekatzeko.

Ahozko komunikazioa menderatzea lehenasunezko konpetentzia da gizakiaren garapenean; batez ere, gizarte trebetasunetan. Hitz egiten –eta entzuten– jakiteak esan nahi du hizkuntza erabiltzeko konpetentzia dugula *continuum* batean, eta prozesu horretan komunikazio modu asko sartzen dira: **bai ahozko komunikazio ohikoenak, informalak eta bat-batekoak, erabilgarritasuna edo bizikidetzak helburu dutenak**, bai erabilera gero eta landuagoak eta formalagoak behar dituzten komunikazio egoerak, eremu akademikoari edo profesionalari lotuta daudenak.

Ahozko bi diskurtso mota bereizten ditugu. Lehenik eta behin, askok kudeatutako diskurtso interaktiboa dago, gutxienez pertsona biren artean eraikia etengabeko negoziazio prozesu baten bidez. Diskurtso mota horretan, bi konpetentzia mota sartzen dira. Batetik, **egoera informaletan behar bezalako elkarrizketak izateko konpetentziak daude**, eta horiek bigarren hizkuntzetan bereziki hartu behar dira kontuan. Bestetik, egoera formalekin –akademikoekin eta profesionalekin– lotutako konpetentziak daude; adibidez, lan komun batean lankidetzan jarduteko elkarrizketa eta norberaren ideiak argudiatzeko, mintzakidea konbentzitzeko edo adostasuna lortzeko eztabaida.

Bigarrenik, bakar batek kudeatutako diskurtsoa dago, diskurtso idatziaren ezaugarrietatik gertu eta formaltasun maila handikoa. (...).

2.1.1. Elkarrizketa informala

Egoera informaletan jariokortasunez, bat-batean eta egoki mintzatzea, gainerakoenganako errespetua erakutsiz eta elkarrizketaren arau sozio-komunikatiboak errespetatuz, pertsonen arteko komunikazio ona garatzeko eta horretaz gozatzeko.

Ebaluazio irizpideak

- Argi, jariokortasunez eta eraginkor mintzatzen da, egoerari dagokion erregistro egokiarekin.
- Adierazpen baliabide ugari eta berezko kultur erreferentziak erabiltzen ditu, hizkuntzaren sentipen eta jolas funtzioei erantzuteko (umorea, ironia, afektibitatea...).

Ebaluaziorako orientazioak

- Rol jokoan, sketchen eta abarren bidez eguneroko bizitzako egoerak antzeztea edo dramatizatzea.
- Ikasgelatik kanpoko egoeretan behatzea: jolastokian, jangelan, irtenaldietan eta txangoetan...

2.1.2. Lankidetzan lan egiteko elkarreragina

Ohiko inguruko hainbat egoeratan eta eginkizunetan lankidetzan lan egiteko behar bezala mintzatzea, elkarreragin komunikatiboan modu aktiboan eta behar bezala parte hartuz, arau sozio-komunikatiboak errespetatuz eta gainerakoenganako errespetua adieraziz.

Ebaluazio irizpideak

- Argi eta jariokortasunez eta egoera bakoitzari dagokion erregistro egokiaz hitz egiten du.

Hizkuntzak eta Literatura diziplina arloan, ahozko komunikazioari eta erregistroei dagokienez, ondoko **kontzeptuak** aipatzen ditu:

1. Ahozko komunikazioaren berezko ezaugarriak

1.1. Testuinguruarekin lotutako ezaugarriak

Informala

- Unibertsala, giza izaeraren osagarria.
- Gizartearen berezko garapena.
- Iragankorra, iheskorra.
- Hizketakideen presentzia: aldi bereko espazioa-denbora, partekatua.
- Testuinguruari buruzko informazioa.
- Sortu ahala egindako diskurtsoa, hartzearekin batera egina.
- Euskalkien nahiz hizkuntza erregistroen presentzia komunikazio egoerako ezaugarri sozialen baitan.

Formala

- Ez da unibertsala eta eskolan ikasten da.
- Iragankorra eta benetako denboran egina.
- Egoerazko testuinguru partekatua, norabide bakarreko komunikazio hierarkiko samarra.
- Igorle-hartzaile elkarrekintza: emoziozko harremana.

1.2. Testuarekin lotutako ezaugarriak

Informala

- Gai orokorra eta askea
- Erregistro arrunta, eskuarki.
- Elkarrizketan oinarritua.
- Pertsonen artekoa eta subjektiboa.
- Berezkoa eta erredundantea.
- Testu egitura askea (digresioak, gai aldaketak...)
- Hitzik gabeko hizkuntzen funtsezko esku hartzea (keinuak, aurpegia, gorputza, hizkuntza proxemikoa...)

Formala

- Gai espezializatuak.
- Erregistro formala.
- Oro har, homologatua. Planifikazioaren eta berezkotasunaren arteko konbinazioa.
- Hizkuntza idatzia baino errendundanteagoa eta informazio dentsitate gutxiago ematen duena.
- Hitzik gabeko hizkuntzen funtsezko esku hartzea (keinuak, aurpegia, gorputza, hizkuntza proxemikoa...)
- Ikus-entzunezko eta hitzezko kodeen integrazioa.

1.3. Hizkuntz ezaugarriak

Informala

- Intonazioaren, bokalizazioaren eta ahoskeraren funtsezko eginkizuna.
- Lexikoaren gutxieneko hautaketa: errepikatzea.
- Osagai deiktikoak.
- Galdera markak, harridurak, onomatopeiak, hitz betegarriak.
- Esamoldeak, esaerak, adierazpide retorikoak...
- Anakolutuak, bukatu gabeko esaldiak, elipsiak.
- Hizkuntzaren aldaera sozial nahiz geografikoak (euskalkiak...).

Formala

- Segmentuaz gaindiko ezaugarriak funtsezko eginkizuna (tonua, bolumena, erritmoa).
- Osagai deiktikoen presentzia, galdera markak, harridurak, etab., baina ahozko hizkuntza informalean baino gutxiago.
- Esamolde, esaerak, adierazpide retorikoak... baina ahozko hizkuntza informalean baino gutxiago.
- Anakolutuak, amaitu gabeko esaldiak eta elipsiak, baina ahozko hizkuntza informalean baino gutxiago.
- Arauen zuzentasuna eta barietate estandarren erabilpena.

3. Testuen ezaugarriak

3.1. Egokitasuna. Komunikazio egoeraren osagaiak, komunikazioaren helburua, formaltasun maila, erregistroa, espezifikotasun maila, hizkuntza aldaera: euskalkia, erregistroa...

Prozedurak direla eta, honakoa:

1. Ahozko testuak ulertzeko jarraibideak.

1.2. Entzuketa fasea. Hizkuntza eta erregistro barietatea identifikatzea eta ondorioztatzea.

2. Ahozko testuak sortzeko jarraibideak

2.1. Diskurtso poligestionatuak sortzeko jarraibideak. Esperimentzia bere testuinguruan jartzea:

- Helburua definitzea (zer nahi den, zer egin behar den, norentzat, eta zer asmorekin).

- Hizketakideak eta komunikazio egoera ezagutzea.
- Hizkuntz aniztasuna, erregistroa, tonua eta diskurtsoaren estiloa hautatzea, besteak beste.

2.2. Diskurtso monogestionatuak sortzeko jarraibideak. Esperimentzia bere testuinguruan jartzea:

- Helburua definitzea (zer nahi zen, nola egin behar den, noiz eta zer asmorekin), hizketakideak eta komunikazio egoera ezagutzeko.
- Testuen generoa aukeratzea, baita hizkuntza mota, erregistroa, tonua eta diskurtsoaren estiloa ere, besteak beste.

Aurreko lerroaldeetan garbi ikusten dugu erregistro aniztasuna landu behar dela, betiere ikasleak bere hizketa egokiro moldatu dezan komunikazio egoerak eskatzen dituen ezaugarrien arabera. Auzia da, izan ere, zer nolako euskara erabili eta irakatsi erregistro formalekoak ez diren egoera eta diskurtsoak lantzeko.

3.5. Ondorioak

Aipatu ditugun dokumentu didaktiko guztietan behin eta berriz aipatzen dira ideia batzuk:

- a. Ikasleek argi, jariokortasunez eta eraginkor hitz egiten ikasi behar dute, egoerari dagokion erregistro egokiarekin.
- b. Eskolako lana inguruaren ezaugarrietatik abiatu behar da, eta hizkuntzari dagokionez, eskola non dagoen, hango ezaugarri soziolinguistikoak aintzat hartu behar ditu.
- c. Eskolan hurbilekotik hasi behar da (beraz, hizkuntza kontuetan euskalkitik, inguru euskalkidunetan, baina besteetan ez, halaberrez behintzat), eta gero pausoka-pausoka urrutikora igaro.
- d. Hizkuntzaren balio funtzionalari garrantzia eman behar zaio.
- e. Ikasleak lehenagotik zer dakien kontuan hartu behar da nahi eta nahi ez, eta haren hizkera errespetatu behar da.
- f. Eskolan ahozko hizkera landu behar da.
- g. Lagunarteko hizkera edo egoera informaleko hizkera euskalkian edo azpieuskalkian oinarritzen da. Hizkera landua, berriz, euskara batuan edo euskalkiaren erabilera landuan.
- h. Ahozko kodean malgu jokatzeko proposatzen da. Kode idatzian, berriz, erabilera landua batasunerako arauak errespetatuz.

Orain arte maila teorikoan aritu gara zenbait kontzeptu linguistiko argitu nahian eta bi curriculumetan kontzeptu horiek nola jaso diren edo zer leku egin zaien agerian jarri nahi izan dugu. Gainera, zenbait adierazpenen bitartez, euskararen aldaerak zein esparrutan kokatu behar diren argitu dugu. Aurrerantzean, zenbait ikastolatan praktikan zein jokabide hartu duten azalduko dugu.

4. EUSKARAREN TRATAERA PRAKTIKOA HAINBAT IKASTOLA ETA IKASTETXETAN

Ikastola eta ikastetxe batzuek hartu duten bidea zein den jakitea argigarri izan daiteke erregistro eta aldaeren lekua zein den aztertu nahi dugun honetan. Horretarako, Hegoaldeko eta Iparraldeko zenbait jokabideren berri emango dizuegu ikuspegi orokorrago bat osatzeko.

4.1. Hegoaldean

Ikastola aldizkarian, 1998an, Ondarroako *Zubi Zar* ikastolan, bertako hizkuntza politikaz galdetuta, honela zioen orduko zuzendariak:

(...) Irakasle izateko bizkaieraren ezagutza eskatzen da, baina gero ikasle-irakasle arteko harremana, gurasoekikoa eta bertan ateratzen diren argitalpenetan batua bakarrik erabiltzen dugu (...). Haur Hezkuntzan bertoko euskara erabiltzen bada ere, idazkera lantzen hasten direnetik hemen ez da bizkaierarik lantzen eta beharrik ere ez dago, hemengo euskara moldea oso indartsua baita eta ez baitu galtzeko inolako arriskurik. Bestalde, batua lantzeko gune bakarra ikastola da¹¹.

Ikastola bereko Joxe Mari Urtegak zehaztapen gehiago eman zituen:

Gure bigarren hizkuntza ez da ingelesa, hemengo bigarren hizkuntza euskara batua da. Gela barruan gaiak lantzeko euskara batua darabilte, baina ikasle batek besteari zerbait eskatu behar dionean, ondarrutarrez eskatuko dio. Mintzamenean, Barriola Deklamazio Lehiaketa prestatzen dugunean esate baterako, saiatzen gara bizkaitar literarioko testuak aukatzen, baina ondarrutarra ez dugu lantzen eta bizkaiera ere gutxi, baina

¹¹ *Ikastola* aldizkaria 74, 1998, 10-11 or.

ez dut inolako dudarik hitz egiteko orduan ondarrutarrez moldatzen direla ondoen, horretan dituztela baliabide aberatsenak. (Ibidem)

Lekeitioko ikastolako zuzendari Natxi Aranburuk honela zioen:

Guk erabaki sinple bat hartu genuen: Haur Hezkuntzan komunikazio guztia bizkaieraz egitea eta idazketa-irakurketa prozesua hasten den momentutik jarduera akademikoan euskara batuaz eta komunikazio guztia bizkaieraz egitea. Bizkaiera diogunean, bizkaiera osatua esan nahi dugu eta norbere herriko euskararen laburdura eta akatsak zuzentzen saiatzen gara. Erabakia oso sinplea da baina guri lana asko argitu digu, urte askotan nahasketa handia izan baitugu auzi honen inguruan. (Ibidem)

Orduan adierazi zutena egun horrela den galdetu genuen ikastolan eta honela erantzun ziguten:

Haur Hezkuntzatik DBHraino testu idatziak euskara batuaz egiten dituzte. Eskolako jardueran, ahozko komunikazioa batuaz gauzatzen dute, beti ere bizkaieraren ukituaz. Eskola jardueratik aparte, esaterako, jolasaldian, banan-banango elkarrizketak, jantokian, eskola orduetatik geroko jarduerak eta abar, bizkaieraz.

Sopelako ikastolan, berriz, honela mintzatu zen orduko zuzendaria, Imanol Igeregi:

Guk Haur Hezkuntzatik hasi eta 4. maila arte bizkaiera erabiltzen dugu eta hortik gora batua, nahiz eta goiko mailetan komunikazio hizkuntza bezala bizkaiera erabiltzeko aukera guztiak ematen diren. Honek esan nahi du guk idazketa-irakurketa prozesu osoa bizkaieraz egiten dugula eta laugarrenetik gora hasten garela jarduera akademikoan batua sartzen. Ikastolako ikasleen ehuneko 30 bakarrik dira etxetik euskara dakartenak eta horrek asko murrizten du euskalkien erabilpena. Gure ereduarekin bizkaiera eta batua ikasten dituzte, nahiz eta gurasoen euskaldun zaharren kopurua txikia delako azkenik euskara batua nagusitzen den, goiko mailetan irakasmateria la batuan baitago eta irakurgai gehienak ere bai. Hizkuntza probetan, erabat batua edo erabat bizkaieraz egiten duten ikastolen pareko emaitzak lortu ditugu eta biak ezagutuz ateratzen dira gure ikasleak (Ibidem).

2006an, ostera, zein hizkuntza eredu erabiltzen duten galdetuta honela erantzun digute Ander Deunako profesionalak:

Nagusiki euskara estandarra (batua). Haur Hezkuntza osoan eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailetan bizkaiera erabiltzen dugu, batez ere

ahozko komunikazioan. Andereño bakoitzak menperatzen duen aldaera erabiltzen du (Arratikoa, Mungia aldekoa, Berrizkoa, Bermeokoa...). Baina, oro har, bizkaiera estandarren inguruan aritzen dira gehienak. Hala ere, ikasgelan erabiltzen duten material pedagogiko gehiena euskara batuan dago (Urtxintxa, Txanela...). Horra hor, gure nahaste-borrastea. Bazuontzat kontraesan esanguratsua da; besteentzat ez da horrenbestekoa.

Bermeoko ikastolaren kasuan, honelako berbak egin zituen, 1998an, orduko zuzendariak, Jose Muruagak:

(...) Azken urteotan, hala ere, gogoeta pedagogikoak egin ditugu arazo honen inguruan eta bi erabaki hartu ditugu: alde batetik 12 urterekin baturantz pausoak ematea komenigarria dela eta, bestetik, Bermeoko euskara moldea ere ikasi egin behar dela, bertoko moldea kalean gal ez dadin.(...) Ikastolan sartzan direnean, bertoko moldean hitz egiten saiatzen gara. Idazketa prozesua hasi arte ez diegu zuzentzen eta idazketa bizkaiera osotuan egiten dute, harremanetan herriko euskara erabiliz (Ibidem).

Bergarako ikastolan, berriz, Haur Hezkuntzan Bergarako moldea lantzen dute eta beste ikasmailetan hauxe da jardunbidea:

(...) Lehen eta Bigarren Hezkuntzan euskara batua da eredia, baina ikasleekiko harreman kolokiala eta gela barruko azalpen guztiak bergaratarrez egiten saiatzen dira irakasleak eta programaren barruan asteen ordubete dute herriko euskara lantzeko (Ibidem).

Iruñeko Jaso ikastolan ere erantzun digute gure galderi eta hona haien hitzak:

Ikastola osoan euskara batua erabiltzen dugu. Idatzian beti erabiltzen dugu euskara batua; ahozkoan, berriz, DBHn eta irakaslearen arabera nafarrerari ematen diogu lehentasuna. Ez dugu deus erabakia, gehienak nafarrak gara eta zenbait irakaslek ahozkoan nafarrerari ematen diote garrantzia.

Armentia ikastolakoek hizkuntza estandarra darabilte ikasleen aurrean, irakasle bakoitzak jatorriaren arabera har dezakeen ñabardurekin. Langileen arteko harremanak neurri handi batean estandarrean gauzatzen dira, baina bada joera ere norberaren aldaera erabiltzeko egoera ez formaletan.

Laskorain ikastolakoek esan digutenez, beren hizkuntza eredu bakarra idatzian euskara batua da. Ahozkoan, ordea, bertako hizkera eta estandarra

oso gertukoak dira, beraz ez dago alde handirik. Dena dela, ikastolan leku askotako irakasleak izanik, euren ohiko moldea erabiltzeko gonbita egiten zaie, ikasleekiko harremanetan aberasgarri delakoan.

Oiartzon erabiltzen duten erregistroa, oro har, formala da eta idatziz egiten diren gauza guztiak batuan egiten dira. Ahoz egiten direnak gehixeago urrutiratzen dira estandarretik, baina ez asko. Hala ere, desberdintasun txiki bat izan liteke eskola ematen ari den edo irakasleak ikasleekin bestelako harremanak dituenen. Hala ere, irakasle gehienak ez dira ingurukoak, eta ikasleekin ari direnean ezkutatu egiten dituzte euren euskalkiaren ezaugarriarik nabarmenenak, berez hala ateratzen zaielako.

Ikastolen zenbait adibide osatze aldera, Julian Maia irakasleak Gernikan, Beran eta Lesakan eginiko galdeketaren emaitzen berri emango dizuegu, ez hainbeste zein hizkuntz hautu egin duten jakiteko, baizik jarduera akademikoan eta ez-formalean nola jarduten duten ikusteko:

Lehenbiziko galdera: zein hizkuntz eredu erabiltzen duzue zuk eta ikasleek ikasgelako harremanetan?

Aukeran zituzten erantzunak, berriz, honakoak: a) herriko hizkera, b) euskara batua, c) euskara batua eta herriko hizkera.

Galdekaturiko 42 irakasleetatik 41ek erantzun zuten euskara batua eta herriko hizkera.

Bigarren galdera: euskara batua eta herriko hizkera erabiltzen badira gelan, noiz herrikoa eta noiz batua?

Galdera horren bidez, hizkuntz eredu bakoitza zein esparrutan erabiltzen den ikasi nahi zen, eta erantzuna emateko atal bi bereizten ziren: idatzizko lanak eta ahozkoak. Erantzun hauen artean hautatu behar zuten: a) beti batuan, b) batzuetan batuan eta beste batzuetan herrikoan (zer motatakoa den lana), c) beti herrikoan, d) ez dago zehaztua eta bakoitzak nahi edo ahal duen bezala egiten du, e) beste modu batean (esan zein).

Gernika aldean, idatziari dagokionez, gehienek erantzun dute euskara batua erabiltzen dutela beti, eta batek, diktaketa lanetan batua, baina ipuinetan askatasun handiagoz jokatzeko duela. Ahozkoaren esparruan, ostera, %95ek bi ereduak erabiltzen direla ikasgelan, banaketa irizpide desberdinen arabera:

- 22tik 14k batzuetan batua eta beste batzuetan bizkaiera, nolabaiteko nahastean.
- 2 irakaslek aukera hori bera baina aditza beti batuaz.
- 2 irakaslek eginkizunaren formaltasun mailaren arabera: irakurritakoa eta ikasitakoa adierazteko batuaz; elkarrizketa informalean, bere esperientziak, txisteak kontatzeko orduan bizkaiera onartzen dute.

Lesaka eta Berako ikastetxeetan, berriz, eta idatziari dagokienez, ia irakasleen erdiek bertako euskalkia erabiltzen dute idatzian. Ahozkoan, ordea, multzorik ugariak erantzun biren inguruan ditugu: “ez dago zehaztua, bakoitzak ahal duen edo nahi duen bezala egiten du” eta “batzuetan batua eta beste batzuetan herrikoa, nolabaiteko nahastean”.

Mendebaldeko Ikastolen jokabide gehienak ikusita ondorioztatu daiteke behe-mailetan eta harreman kolokialetan herriko hizkera edo euskalkia baliatzen dutela, eta idazketa-irakurketa prozesuan batuaz aritzen direla, prozesuaren hasieratik bertatik aurrera edo etapa jakin batetik aurrera.

Ikastetxeetako datuak ikusita, berriz, ahozkoan batua eta herriko hizkera baliatzen dituzte, nolabaiteko nahastean. Oso irakasle gutxik bereizten ditu erabilera biak eginkizunaren formaltasun mailaren arabera. Idatzian, ordea, Gernika aldean batua erabiltzen dute beti, baina Nafarroakoetan, erdiek euskalkia eta erdiek batua.

4.2. Iparraldean

2001ean, Mendebalde Kultura Alkarteak antolatu zituen Euskalkia eta Hezkuntza izeneko jardunaldien barruan, Iparraldeko egoeraren berri eman zen hainbat lagunen artean idatzitako ponentzia baten bitartez¹². Azterlan honen harira datozen zatiak dituzue ondorengo lerrootan:

Lehen Hezkuntzako 19 ikastola daude (ama-eskola eta lehen maila): 13 Lapurdin, 4 Nafarroa Beherean eta 2 Zuberoan. Bigarren Hezkuntzan, berriz, 3 kolegio (2 Lapurdin eta 1 Nafarroa Beherean) eta lizeo bakarra Lapurdin.

Lehen Hezkuntzan, 3 ziklo dira: lehena, 5 urtera artekoa; bigarrena, 8 urtera artekoa; eta hirugarrena, 11 urtera artekoa. Horietako lehen bi zikloetan tokian tokiko berezitasunak begiratzen saiatzen dira, eta hirugarren zikloan bereziki idatzizko euskarriak erabiltzean batua sartu. Hala ere, hiru egoera bereiz daitezke ikastolaren kokapen geografikoaren arabera:

- Lapurdiko ikastoletan. Eskolatzen diren haurren % 80k erdara dute lehen hizkuntza. Ikastola horietan batuaz aritzen dira eta ahozko adierazpenean tokiko hainbat ezaugarri dialektal erabiltzen dira, bereziki lexikalak eta fonetiko-fonologikoak. Zenbait ikastolatan, irakaslearen ekimenez, euskarri idatzietan ere egokitze batzuk egiten

¹² Euskalkien trataera Iparraldeko ikastoletan izeneko artikulutik hartutakoa, in *Euskalkia eta Hezkuntza* (2001), Mendebalde Kultura Alkartea.

dira hiztegi eta morfosintaxiari dagokienez. Betiere, erabiltzen diren euskalki adierazpen horiek lapurtar-baxenafarrerazkoak dira eta ez dira ez sistematikoki erabiliak, ez eta eredu bati jarraikiak.

- Hainbat eskualdetako haurrak biltzen dituzten Nafarroa Behereko ikastoletan. Ortzaize eta Lasako ikastoletan, adibidez, Baigorri eta Garazi aldeko haurrak biltzen dira eta hauek bi azpieuskalkitan mintzo dira. Ahozko adierazpenean, ikasle bakoitzak bere azpieuskalkia erabiltzen du, baina idatzizko eredu sartzen den heinean, bereziki hirugarren zikloan, lapurtar-baxenafarrera eta aditz batua erabiltzen da ikastola hauetan.
- Tokian tokiko haurrak biltzen diren ikastoletan. Ikastola hauetan, Zuberoako eta Oztibarreko ikastoletan adibidez, tokiko azpieuskalkia erabiltzen da lehen bi zikloetan, eta hirugarren zikloan, irakurketan eta idazketan, batua sartzen da euskalkiarekin lotura eginez. Oztibarreko ikastolan proiektu interesgarri bat garatzen ari dira tokian erabiltzen diren aditz alokutiboak kontuan hartuz.

Bigarren Hezkuntzako kolegioetara biltzen diren haurrak eskualde ezberdinetakoak dira, azpieuskalki eta euskalki ezberdinak mintzo direnak. Gauzak horrela, haurrak ere haien artean, frantsesa erabiltzen ez dutelarik, batueraz mintzo dira, Iparralde osoan erabiltzen diren forma lexikal eta fonetiko-fonologiko batzuk erabiliz. Salbuespen bakarra toki berekoak diren haurren artean gertatzen da. Horiek arduratzen baitira tokiko hizkeran, zuberotarrak haien artean adibidez.

Lizeoan euskalkiei ematen zaien trataera kolegioetan ematen zaien berdintsua da. Alabaina, euskarazko kurtsoetan, lehen urtean, Iparraldeko euskalkiren bat barnagotik lantzen da. Bigarren urtean, aditz alokutiboak lantzen dira, norberaren euskalkikoak eta hitanoka batueraz.

Seaskaren baitan ez da sekula eramana izan euskalkien trataerari buruzko gogoeta sakonik eta ondorioz ez da sekula hartu delibero finkorik sail honetan, nahiz jarraibide batzuk beti izan diren, hots, hurrek eskolako lehen urratsak beren euskalkian egin behar dituztela eta lehen maila bukaeran, emeki-emeki batura hurbiltzen hasi beharko lirakeela.

Iruzkinen beharrik ez du, gure ustez, argi eta garbi esaten baita azken lerroartean Iparraldeko ikastoletako jokabidea zein den.

Atal hau amaitzeko, irakurle bakoitzak aterako ditu bere ondorioak, baina badirudi maila teorikoan esan direnak neurri handi baten betetzen direla kode idatziari dagokion arloetan, hau da, euskararen aldaera batua edo euskalkiaren erabilera landua erabiltzen dela. Kontuak nahasiago ageri dira ahozko kodean, gehienek batua eta herriko hizkera «nolabaiteko nahastean» darabiltzate, eta beste batzuek, berriz, herriko hizkera darabilte harreman informaletan eta batua eskolako jardunean.

5. EUSKARAREN TRATAERA-MARKOIA ZEHAZTEN HASTEKO LEHENENGO URRATSA

Eta Hezkuntza-komunitateak, Ikastolak zer erabaki behar du honen guztionen inguruan? Bada, besteak beste, zein zeregin eta funtzio bete nahi duen eta zein helburu lortu behar duen. Hartara, oso lagungarri gertatuko zaigu J. Maia irakasleak Eskolako Hizkeraz idatzitako doktore-tesitik hona ekarri eta moldatu dugun hainbat pasarte.

5.1. Eskolaren zeregina eta funtzioak

Bi motatako eskolak izango genituzke, hark inguruko gizartearekin dituen harremani dagokionez. Alde batetik izango genuke ingurunearekin batere loturarik eduki gabe diharduen eskola, uharre baten gisakoa, gizartetik berezia. Eskolan eduki gisa tratatzen eta ikasten dena ez da erlazionatzen ez bertako gizartearekin eta ez bertako bestelako ezaugarriekin ere. Eskolaren ulerkera honen arabera inguruko gizarteak eta beraren ezaugarriek ez dute zertan baldintzatu eskolako lana. Instituzio horrek zeregin jakin batzuk ditu, zehazki finkatuak, eta ez du inguruaren arabera moldatu edo egokitu beharrik sumatzen.

Hizkuntzari dagokionez, jokaera-ildo horretan dabilen eskolak ez dio zertan eskaini arreta txikiena ere tokian tokiko ezaugarri linguistikoei. Instituzioak bere baitan du hizkuntz eredu, eta huraxe irakasteko ardura du, bazter guztietan berdin. Eredu horretatik kanpo gelditzen den guztia gaizki esana da, eta gaitzetsi eta zuzendu behar da, besterik gabe. Irakasleak terminologia abstraktuak-eta ikasten ditu eta eredu batzuk gomendatu ere egiten zaizkio, baina ez du eskolan bere handik kanpoko eguneroko hizkuntza lantzen, eta ez langai ikusten ere. Horrela, Hego Euskal Herrian, adibidez, orain dela urte batzuk gaztelera hutsa irakasten zen eskola orotan, inolako kasurik egin gabe hizkuntzaren benetako errealitateari, hots, gizarte

euskalduna edo erdalduna zen aintzat hartu gabe, eta sarritan nahiaren kontra ariaz, gainera.

Inguruarekiko harremanik gabeko eskola-eredu horren aurka, azkeneko hamarkadan bederen aldarrikatzen da beste eskola-eredu bat, gizartean txertatua eta hari erantzunez jardungo lukeena¹³. Eskola lana antolatzeke orduan, gainera, ingurua langai eta abiaburu hartuta, hura ezagutzea hartzen da lehen helburu gisa, eta ezarian-ezarian proposatzen da jakintza abstraktuagoak eta orokorragoak eskaintzea ikasgai moduan.

Hizkuntzari dagokionez, benetako errealitatea kontuan hartuko luke eredu honek, eta gizartearen nahiari erantzungo lioke. Euskarak berak eskaintzen dituen eredu desberdinen artean bereizteke orduan, ikuspuntu honen arabera gogoan hartu beharko litzateke eskolaren inguruko gizarteak hizkuntza nola erabiltzen duen. Horrela, inguruan euskalkia erabiltzen baldin bada, errealitate hori nola edo hala aintzat hartuko litzateke. Horrek ez du esan nahi, dena dela, nahitaez euskalkia erabili behar dela eskolan, inguruan eredu hori erabiltzen bada eta horrengatik bakarrarengatik. Izan ere, eskola komunitate batek, bere ezaugarri guztiak kontuan harturik, beharbada pentsa dezake ingurune euskalkidun batean kokatuta egonda ere hori ez dela ikastetxean landuko. Erabaki hori eskola-komunitateak hartu beharko luke, eta kontuan hartu beharko litzateke faktore bat baino gehiago: inguruak zenbateko euskalduntasuna erakusten duen, edo nolako ikasleak etortzen diren bertako ikasgeletara.

Dena dela, inguruan erabiltzen den hizkuntza mota ezin da ahantzi eskolako lana antolatzeke orduan, eta are gutxiago gutxietsi edo gaitzetsi. Horrengatik, faktore honen arabera, inguruan gaztelera besterik ez bada erabiltzen, uste dugu hobe dela euskara batua erabiltzea eskolako lan formaletan (beti ere euskara batuaren kontzepzio zabal baten barrenean) eta eskolako eginkizun informaletan euskararen aldaera informal bat edo familiar bat (ahal denik gertuena eta orokorra). Baina eskolaren inguruko gizartean euskalkiak bizirik eta zelanbaiteko bizkortasunez irauten badu, orduan uste dugu eredu hori aintzat hartu behar dela eta erabili eskolako lanetan, betiere eginkizunen formaltasun maila eta idatzizkoaren eta ahozkoaren arteko desberdintasunak kontuan hartuz. Horrela etxeko hizkera moldeek antz handiagoa izanen luketelako, eta gisa horretan hizkuntzaren irakaskuntza baldintza hobeetan egingo litzatekeela uste baitugu, hots, emaitza hobeak aterako liratekeela. Izan ere, Agirrek-eta dioten bezala (1985):

¹³ Bronckart (1988), OCDak.;

Es un principio psicopedagógico reconocido basarse en lo conocido, es decir, partir de la lengua que ya se tiene y se conoce para aprender una nueva. La teoría de la “tabula rasa” se desechó hace tiempo. A nivel de lengua y en el aprendizaje de una segunda o de los diferentes registros de la propia, parece justo apoyarse en la que el niño trae, como parece igualmente pedagógico la introducción de la lengua familiar y sus registros a nivel de escuela, bien los emplee el profesor, bien el alumno, así como establecer los momentos de empleo y análisis. La observación y toma de conciencia de esta lengua o de sus registros, por parte del alumno o el profesor, supone, además de la confianza que proporciona, el camino más adecuado para el conocimiento de las posibilidades que la lengua encierra.

Bestalde, ez dugu begien bistatik kentzen eskolaren funtzioen artean, Euskal Herriaren kasuko ezaugarri askotarikoak gogoan izanik (hizkera desberdineko atxikimenduak, adibidez), gure irudiz instituzio horrek balio dezakeela nork bere hizkera hobeto ezagutzeko, eta hortik hizkuntzaren erabilera joriagoa eta biziagoa sustatzeko etor daitekeen laguntza. Ezen, Lopez del Castillock dioen bezala (1988), hizkuntza estandarra ezinbestean irakatsi eta landu behar baitu eskolak, baina gogo onez hartu behar baititu, orobat, herri xehearen hizkeraren berezitasunak.

Areago, Euskaltzaindiak *Euskalkien Erabileraz* izeneko adierazpenean, irakaskuntzari buruzko atalean, dioena aintzat hartuz gero:

Hezkuntzan, gutxienez, erregistro biren erabilerak behar du lekua: lagunartekoak eta landuak (eskolari zuzen-zuzenean dagokionak), betiere gogoan izanik ahozkoaren eta idatziaren arteko bereizketa. Izan ere, hezkuntzaren zereginik behinenetariko bat ikasleei hizkuntzaren erabileran ahalik eta trebetasunik handiena ematea da: hizkuntza aberatsa eta egoeraren araberakoa.

5.2. Eskolaren helburuak, hizkuntza-ereduei dagokienez

Eskola tradizionalaren ikuspuntutik, helburua hizkuntzaren forma literario eta ereduzko bat irakastea zen, ikasle guztiekin berdin, ikasleak nonahikoak zirela eta nolana hiko aurretiko ikaskuntzak zituztela. Eskola modernoak, aldiz, ikasleen adierazpen eta komunikazio gaitasunen garapena hartuz helburu gisa, ikasleek dakartzaten ezaugarriak ere kontuan hartzen ditu.

Eskolak arreta handia eskaini behar dio gizarteak eskola umeen bidez sartzen dituen ezaugarri linguistikoak, eta horiek zaindu eta landu egin behar dira, baina, era berean, eskolak ezin utzizko eginkizuna du hizkuntza estandarra irakastea. Beraz, hizkuntza estandarra irakasteak lehen mailako

helburua izan behar du eskolaren zereginen artean, nahiz eta horrekin batera herrian herriko hizkerak eta bestelako aldaerak onartu.

Gainera, hizkuntzaren didaktikaren alorrean, ez da nahikotzat jotzen hizkuntzaren ikaskuntzaren ikuspegi egokitzat hizkuntza eredu bakar bat menperatzea. Horren orde, hizkuntzaren erabilera ugarietara tratamendu bereziak ezartzeko, eredu ezberdinak lantzea proposatzen da, besteak beste, erregistrokako banaketa proposatuz.

Eskolaren helburuak, hizkuntza-ereduei dagokienez¹⁴

Ingurune soziolinguistikoaren arabera	
Inguru erdalduneko eskola	Inguru euskalduneko eskola
<ul style="list-style-type: none"> - Hizkuntza estandar komuna (inguru hurbileko lexiko eta esapideak dituen). - Euskalkia 	<ul style="list-style-type: none"> - Hizkuntza estandar komuna (inguru hurbileko lexiko eta esapideak dituen). - Euskalkia eta azpieuskalkia.

3. irudia

Taulan ingurune soziolinguistikoaren arabera egin dugu banaketa. Lehenengo eta behin zer egin euskara aspaldi galdu zen eremuetan? Zer egin Santurtzin, Gasteizen, Tafallan eta Baionan? Garbi dago Euskara Batutik abiatu behar dugula eremu erdaldunetan, baina garbi dago, era berean, Portugaleteko euskaldun berriak bizkaitarrekin izango duela harremanik gehien, eta hala Gasteizkoak bizkaitarrekin eta gipuzkoarrekin, nafarrekin Tafallakoak, eta Lapurdi eta Nafarroa Beherekoekin Baionakoak. Horrela laburtuko zaie eta errazago egingo etxetik euskaraz ez dakien ikasle horiei inguruko euskaldunekin jardun ahal izateko bidea¹⁵. Hau da, inguru erdalduneko eskola baterako hemen proposatzen dugun ereduaren arabera, euskara batuak hartuko luke lehentasuna, nahiz eta eredu bateratzaile hori modu zabalean ulertzen dugun (tokian tokiko edo inguru hurbileko ezaugarriak biltzeko joera duena) eta ez eredu

¹⁴ Hemen baten batek esan lezake, eta batuaren aldaera ahalik eta landuena noiz? Gogoan hartu behar da kurtsoetan aurrera egin ahala, denetariko testuak ikusi eta jorratuko dituztela.

¹⁵ K. Zuazo (2000).

murriz, estu eta gogortu baten gisa. Tafallan, esate baterako, ezin ditugu Bortzirietako edo Sakanako bereizgarriak erabili, baina bai Nafarroa osoan hedatuta daudenak (esan / erran, bultzatu / bulkatu, ezer / deus, ibai / ugalde, eta abar... aurreragoko baten zehaztu beharko dira zein ezaugarri diren horiek eta zein jarraibide proposatzen den ahozko eredurako eta idatzizkorako).

Herrialdeko euskalkiaren lanketa ere gehituko genuke proposamen horretan, batez ere, herrialdeko ahozko ereduak ezagutu eta sistematikoki lantzeari emango genioke lehentasuna. Noski, hori ez da nahikoa inguru erdalduneko ikasleen hizkuntz kalitatea bermatzeko. Irtenbideak, proposamen honetan ez ezik, eskolaz kanpoko ekintzetan eta jardueretan ere bilatu beharko dira, besteak beste, ikastolen arteko trukaketak, egonaldiak familia euskaldunetan, aisialdiko ekintzak, e.a.

Ingurune euskalkidunean, berriz, eskolak bi helburu izango ditu: alde batetik euskara batua irakastea, horixe delako hizkuntz erkidego osoaren lokarri izango den hizkera estandarra; bestetik, tokian tokiko hizkera hitzun gazteengan finkatzen laguntzea eta hura erabiltzeko behar den harrotasuna zaintzea. Tokian tokiko hizkera lantzeak lagunduko luke eskolako hizkera etxeakoarekin eta hurbileko gizartearekin lotzen, eta batak bestea sendotzen duela azken batean euskararen beraren erabilera ere indartuko litzateke.

5.3. Eskolaren helburuak, hizkuntza-mailei dagokienez

Egun, hizkuntza menderatzea ez da kontsideratzen erregistro jaso bakarra trebetasunez erabiltzea, baizik eta komunikazio egoeraren ezaugarrien arabera erregistro desberdinetan egoki aritzea. Hala, gaur egun eskolaren helburuen artean, kode idatziaren kudeaketa egokiaz gainera, ahozkoari ere bere esparrua aitortzen zaio, alde batetik, eta gainera, erregistro jantzia edo jasoaz at, bestelako erregistroak edo hizkuntza-maila batzuk ere langai bihurtzen dira eskolaren barrenean.

Hizkuntza-mailak direla eta, lehenago I. Sarasolak Euskal Hiztegian bereizten dituenak kontuan, maila arrunta edo arrunckeriak lantzea ez dagokio eskolari, gizarteko harreman informalean bailitzateke haren garapen lekua. Eskolaren lanik handiena maila neutro deitzen dion horretan dago, baina goikoak eta behekoak ere izan dezakete beren funtzioa eskolako zereginetan. Maila horietan dago, gure ustez, hizkuntza estandarren zatirik handiena.

Eskolaren helburuak, hizkuntza-mailai dagokienez

Ingurune soziolinguistikoaren arabera	
Inguru erdalduneko eskola	Inguru euskalduneko eskola
- Neutroa - Goikoa - Behekoa	- Neutroa - Goikoa - Behekoa

4. irudia

Derrigorrezko Eskolaldiaren amaieran hizkuntzaren jakite-maila neurtzeko, bai Euskal Curriculumean, bai EAEko ISEI erakundearen ebaluazio txostenean, bai Europako Erreferentzia Markoan proposatzen da ikasleek B2 mailako gaitasuna lor dezaten euskaraz. EGA Euskarazko Gaitasun Agiri ofiziala, esaterako, sailkapen horretan C1 mailakoa da.

6. AUKEREN ARABERAKO MARKOA

Orain arte esandakoa labur bilduz, lehenik zenbait adituk euskararen kalitatearen eta gaurko euskaldunen hainbat gabeziaren inguruko iritziak ekarri ditugu; bigarrenik, gabezia horiei konponbide bat emateko bi kontzeptu aurkeztu eta azaldu ditugu, hizkuntzaren bariazioa eta erregistroak, alegia; hirugarrenik, bi kontzeptu horiei buruz zein gomendio plazaratu diren eta horiek lantzeko orain arteko curriculum diseinuetan zein leku eta aterpe duten; laugarren atalean ikusi dugu zenbait ikastola eta ikastetxetan nola jokatzen duten praktikan; bosgarren atalean proposatu dizuegu Ikastolak hartu beharreko zenbait erabaki hizkuntza-eredu eta maileri dagokienez. Hurrengo atalean, berriz, proposamena zehazten hasiko gara.

6.1. Inguruko euskalduntasun maila

Behin baino gehiagotan aipatu da txostenean ingurune soziolinguistikoa. Bada, ingurune soziolinguistikoa aintzat hartzeko faktore bat proposatu du Maia irakasleak, *eskolaren inguruko euskalduntasun maila*, hain zuzen.

Kontzeptu horren bitartez aintzat hartu nahi da inguruko gizartean zenbat euskaldun dauden, haietako zenbat euskalkidun, euskararen bizkortasuna eta euskalkiaren indarra. Lehenago ere aipatu dugu haietako zenbait, baina abiapuntu gisa zein hizkuntz eredu hartu behar dugun erabakitzeko orduan, ezinbestekoa da ume euskalkidunen ehunekoak kontuan izatea.

Bestalde, neska-mutikoen ikaste prozesua, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, 0 eta 16 urte bitartean hedatzen da. Hegoaldean, behintzat, Haur Hezkuntzan bi ziklo ditugu (0-3 urte, 3-6 urte); Lehen Hezkuntzan, ostera, 3 aldi bereizten dira (6-8 urte, 8-10, 10-12 urte), eta DBHn lau maila ditugu bi ziklotan (12-13, 13-14, 14-15, 15-16). Iparraldean, berriz, zikloen banaketa zerbait aldatzen da, baina ez da esanguratsua proposamen honetan.

Hala, ikasleen adina eta inguruko gizartearen euskalduntasun gradua kontuan hartuz, erabaki beharko dugu Ikastolaren lehen etapetan zein hizkuntz eredu lehenetsiko dugun. Hau da, lehenengo etapetan ahozko erregistro ez-formal / familiar bat eskaini behar diegu ikasleei Ikastolaren jarduera guztietan (kurrikularrean eta ez kurrikularrean), hautatzen den hizkuntz eredu edozein dela ere. Etapetan gora egin ahala, erregistro ez-formal / familiarra bakarrik erabiliko dugu Ikastolako jarduera eta eremu ez-formaletan, geroxeago zehaztuko denez esku-hartze eremuen berri ematen dugunean.

Beherago eskainiko den taulan, hainbat bide dago aukeran, Ikastola bakoitzak bere burua kokatu dezan ingurune soziolinguistikoaren arabera, hain zuzen bere ingurunetik hartzen dituen euskaldunen ehunekoaren arabera. Gogoan hartu behar dugu beheko taulan erakusten dela hizkuntz eredu nola bilakatuko litzatekeen etapetan zehar, kontuan harturik **zenbat eta aurreratua goa izan etapa, orduan eta eredu jaso goa landu beharko dutela ikasleek eremu formalean.**

Taularen goiko aldean **ikasle euskaldunen ehunekoa** jarri da, hau da, **gela baten etxetik euskaldun diren umeen ehunekoaren** arabera era batean edo bestean jokatzera proposatzen da.

Barrualdeko laukietan, berriz, **eusk.** jarri denean, **euskalkia, eskualdeko** edo **herriko hizkera** esan nahi da, eta **Batua** jarri denean, ostera, **euskara batu estandarren kontzepzio zabala** ulertu behar da, hau da, euskalkiaren edo inguruko gizartearen euskararen ezaugarriak eta bereizgarriak biltzen dituen eredu estandarra¹⁶. Noski, ez da zertan berdina izan Bilboko ikastola batean irakasten den eredu batua eta Tafallako ikastola batean irakasten dena; eredu bakoitzak bere inguru euskalduneko ezaugarriak bildu beharko lituzke.

Taulako geziak zera adierazi nahi du, umeek etapetan eta adinean gora egin ahala orduan eta trinkotasun handiagoz aukera gehiago izango dutela aldaera jaso lantzeko, batez ere eremu kurrikularrean ikastolak erabakitako neurrian eta ereduaren bitartez.

¹⁶ *Herrialdeko batua* proposatzen du K. Zuazok.

ERREGISTRO EZ-FORMALAK ETA FORMALAK GAUZATZEKO HIZKUNTZAKO HIZKUNTZ EREDUAK

		%0-20 eusk. A		%20-40 eusk. B		%40-60 eusk. C		%60-80 eusk. D		%80-100 eusk. E	
Eskolaurrea	0-3 urte	Inform.	Form.	Inform.	Form.	Inform.	Form.	Inform.	Form.	Inform.	Form.
		Batua / Eusk.	(1)	Eusk.	(1)	Eusk.	(1)	Eusk.	(1)	Eusk.	(1)
Haur Hezkuntza	3-6 urte	Inform.	Form.	Inform.	Form.	Inform.	Form.	Inform.	Form.	Inform.	Form.
		Batua / Eusk.	(2)	Eusk.	(2)	Eusk.	(2)	Eusk.	(2)	Eusk.	(2)
Lehen Hezkuntza	6-8 urte	Inform.	Form.	Inform.	Form.	Inform.	Form.	Inform.	Form.	Inform.	Form.
		Batua / Eusk.	Batua	Eusk.	Landua	Eusk.	Landua	Eusk.	Landua	Eusk.	Landua
	8-10 urte	Inform.	Form.	Inform.	Form.	Inform.	Form.	Inform.	Form.	Inform.	Form.
		Batua / Eusk.	Batua	Eusk.	Batua	Eusk.	Landua	Eusk.	Landua	Eusk.	Landua
	10-12 urte	Inform.	Form.	Inform.	Form.	Inform.	Form.	Inform.	Form.	Inform.	Form.
		Batua / Eusk.	Batua	Eusk.	Batua	Eusk.	Batua	Eusk.	Landua	Eusk.	Landua
DBH	12-14 urte	Inform.	Form.	Inform.	Form.	Inform.	Form.	Inform.	Form.	Inform.	Form.
		Batua / Eusk.	Batua	Eusk.	Batua	Eusk.	Batua	Eusk.	Batua	Eusk.	Landua
	14-16 urte	Inform.	Form.	Inform.	Form.	Inform.	Form.	Inform.	Form.	Inform.	Form.
		Batua / Eusk.	Batua	Eusk.	Batua	Eusk.	Batua	Eusk.	Batua	Eusk.	Batua

■ Erregistro familiarra erabiliko da, beti ere ahozko kodean. Hortik aurrerako etapetan erregistro familiarra dagokion ahozko esparru ez-formalean erabiliko da.

(1) Esparru ez-formala da, ludiakoa, afektrioa eta, beraz, eredu familiarra erabiltzeko modukoa.

(2) Ziklo honetan 3 etapa ditugu. Irakurketa-idazketari ekin ahala, ez-formaletik formalera, ahozkotik idatzira igarotzen hasiko gara eta, beraz, eredu familiarretik ez-familiarreara, tokiko hizkeratik eredu landura.

6.2. Eskolaurrea eta Haur Hezkuntza

Beraz, proposamen honen arabera irakaskuntzaren lehenengo urteetan, inguru euskalkidunean tokian tokiko hizkerak erabiliko dira. Inguru erdaldunean, berriz, ez dirudi inguruko gizartean euskalduntasun gradua oso baxua edo bat ere ez izanda euskalkiaren aldeko hautua egokia denik, eta bai, ostera, euskalkiaren morfologia, fonologia eta lexiko ñabardurak bilduko lituzkeen eredia.

Gainera, kontuan hartu behar dugu lehenengo urte horietan ahozko kodea dela nagusi, umeek ez dakitela ez idazten, ez irakurtzen eta, beraz, eredu hori ez-formala denez, ez dugu inolako eragozpenik ikusten eredu familiar batetik abiatzeko. Idazketa eta irakurketa lantzen hasten denean, ondo bereizi beharko da ahozko kodean eta kode idatzian nola jokutzen den. Ez ahaztu eredu familiar batean, fonetismoak (palatalizazioak, bustidurak, kontrakzioak eta abar) ohikoak direla, baina ez da hala izaten kode idatzian. Beraz, dekodifikazioa egiten ikasten dutenean, ahozkotik idatzirako pauso hori nola landu aztertu beharko da.

6.3. Lehen Hezkuntza

Garai honetan umeak idazten eta irakurtzen hasi beharko dute. Honezkerok, umearen hizkuntzak finkatuta egon behar du adituen iritziz¹⁷. Bai inguru euskalkiduneko eskolan, bai inguru erdalduneko eskolan berdin tratatuko genuke ahozko kodea, hau da, eredu familiar batetik abiatuta, euskalkiaren edo herriko euskararen ñabardurak onartzen eta onesten dituen eredutik abiatuz, malgu jokatzeari proposatzen dugu ahozko kodean. Kontu horretan berebizikoa da irakasleen jarrera, etxetik dakarren hizkeraren ezaugarriak zuzendu beharrean begirunea erakutsi eta bultzatu beharko lituzkeena.

Bestalde, akatsak ondo bereizi behar dira, euskalkiaren edo herriko euskararen ezaugarrien araberako erabilera den edo bestelako akatsa, benetan zuzendu beharrekoa.

¹⁷ 2001eko Jardunaldi Pedagogikoetan honela azaldu zuten M^a Carmen Eizagirre eta Mertxe Ruiz de Egiño San Benito ikastolako HHko irakasleek: haurra irakurketa-idazketaren funtsa –aho hizketa paperean adieraztea hain zuzen ere- bereganatzeko eta ulertzeko gai da. Horrek ez du esan nahi haurrak bost edo sei urterekin jarraitasunez idatzi eta irakurtzen dakienik, baizik eta hizkuntza idatzia bere eza-gupenen barne dagoela, eta ezagupen hori garatuz eta landuz iritsiko da duen oinarria zabaltzera eta osatzera. Aho hizkuntzaren kasuan, konparaziorako, ezin esan dezakegu hiru urteko haurrak hizketan dakienik, baina hizketaren oinarria, zentzua, bere eza-gupenean finkatuta dago eta denborarekin, hitz egi-nez eta hizketan besteei adituz hizketan ondo ikastera iritsiko da.

Idazketa eta irakurketa lantzen hasten denetik garai honetara orduko, ikastolan zer hizkuntz eredu erabiliko den erabaki behar da, gorago esandako faktoreak —euskararen bizkortasuna, ikasle euskalkidunean kopurua, etab.— aintzat hartuz. Betiere aldaera horren forma idatziratu, hau da, ahozko kodean ohiko diren fonetismoak ezabatzea joko litzateke kode idatzian¹⁸.

Honetara iritsirik, uste dugu komeni dela gogoraraztea Euskaltzaindiak euskalkiaren erabileraz plazaratutako adierazpenak, bata Bergaran azaldutakoa, 1979an, eta bestea, Lezaman, 2004an.

Hain zuzen, Bergarako Biltzarreko adierazpenean, jokaera kaltegarri bat saihesteko, euskalkiak erabiltzerakoan nahitaez bete beharreko baldintza bi ezarri zituen Euskaltzaindiak 1979an (ikus “Euskara batua, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak”):

- a) Idatzian, ortografia bakarra onartuko da batuan nahiz euskalkietan; izan ere, euskara hizkuntza bakarra baita, ez hizkuntza asko. Horregatik, Euskaltzaindiak ortografiaren batasunerako eskaini dituen erabaki eta proposamen guzti-guztiak bete behar dira euskalkietan idaztean ere.
- b) Idatziz nahiz ahoz, hizkuntzaren azpiegituraren arabera (euskararen oinarri bakarraren arabera) jardun behar da beti. Euskararen muin horri dagozkio deklinabide mugagabea, “- a” organikoz bukatutako hitzak, euskalki guztietan legezko den aditz-jokoa, euskal hitzurrena eta abar.

Lezamako adierazpenean, alor bakoitzeko zenbait irizpide eman zuen Euskaltzaindiak, 2004an. Irakaskuntzaren inguruan emandakoen artean, ondorengo hauek gogoan izatea komeni da:

(...)

4.1. Euskalkiek euren nortasuna dute, eta hezkuntzan jagon egin behar dira euren osagai esanguratsuak nahiz hizkuntzan betetzen duten funtzioa, betiere idatzizkoaren eta ahozkoaren arteko desberdintasuna kontuan hartuz eta batasunerako arauak betetz.

4.2. Lagunarteko hizkera —gehientsuenean behinik behin—, euskalkian edo azpieuskalkian oinarritzen dela gogoratu behar da; eta landua, ostera, euskara batuan edo euskalkiaren erabilera landuan. Horrenbestez,

¹⁸ Egun zenbait ikastolatan bizkaiera darabilte jarduera akademikoan. Erabaki hori hartzeko orduan bestelako faktoreak ere kontuan hartu behar dira, besteak beste, ikasmaterialak, irakaslearen profila, batua zelan landu. Eredua edozein dela ere, idatzirako arauak zaindu egin behar dira, ez baitira nahastu behar euskalki idatzia eta ahozkoa.

hezkuntza-komunitateak, egoeraren arabera, beharko du bideratu hezkuntza-prozesu bakoitzari dagokion erregistroa, batez ere lexikoan eta esapideetan. (...)

6.4. Erregistro familiarrak, ez-familiarrak, kodeak eta etapak

Beraz, erabaki dugu Ikastolaren eginkizun, funtzio eta helburuak zeintzuk diren, bai eta lehen etapetan, ahozko kodeari dagokionez, txostenaren bigarren atalean zehaztu diren ezaugarrien arabera erregistro familiarra erabiltzeko hizkuntz ereduak. Ondoren, Euskaltzaindiaren gomendioei jaramon eginez, kode idatzia lantzen hasten denean, forma idatzi arautuak betetzea erabaki edo dugu.

Batzuei aspergarri suertatuko zaien arren, arestian esandako guztiak taula batera ekarri ditugu argiago ikusiko delakoan:

		AHOZKO KODEA	KODE IDATZIA
Eskolaurrea	0-3 urte	Eredu familiarra	_____
Haur Hezkuntza	3-6 urte	Eredu familiarra	Dekodifikazioa / Ekoizpena
Lehen Hezkuntza	6-8 urte	Eredu familiarra/ Ez-familiarra	Forma idatziratu (arautua)
	8-10 urte	Eredu familiarra/ Ez-familiarra	Forma idatziratu (arautua)
	10-12 urte	Eredu familiarra/ Ez-familiarra	Forma idatziratu (arautua)
DBH	12-14 urte	Eredu familiarra/ Ez-familiarra	Forma idatziratu (arautua)
	14-16 urte	Eredu familiarra/ Ez-familiarra	Forma idatziratu (arautua)

6. irudia

Baina zergatik jarri dugu eredu familiar / ez-familiarra bikotea, ahozko kodeari dagokionez, Lehen Hezkuntzako bigarren etapetik hasita Bigarren Hezkuntza amaitu bitartean?

Bada, izan ere eskolan hizkuntzaren erabilera beti ez da ez-familiarra izaten, hots, beti ez da formala izaten. Eta hori erakusteko, **Ikastolaren**

Hizkuntz Proiektua Definitzen¹⁹ lanean zehaztu zituzten **hizkuntzaren esku-hartze eremuak** baliatuko ditugu hurrengo atalean hori azaltzeko.

6.5. Euskararen eremu formalak eta ez-formalak Ikastolan

Aipaturiko lanean esku-hartze eremu bi bereizten dira: pedagogikoa eta instituzionala. Pedagogikoaren barruan, halaber, arlo kurrikularra eta ez-kurrikularra. Arlo ez-kurrikularra hizkuntzaren erabilera ez-formalerako esparru egokia den dudarik ez dago.

Arlo kurrikularrean, berriz, den-dena ez da formala. Ikasgela barruko jardueran, esaterako, ikasketa kooperatiboa bultzatzen denean, gelako jarduerak taldeetan burutu ostean irakaslearen aurrean azalpenak eman behar direnean, hortxe berean ari gara ikasleak jartzen formaltasun aldetik egoera desberdinetan. Demagun irakasleak ataza bat jarri duela gelan, talde txikitik burutzeko eta gero azalpenak emateko jendaurrean; ikasleek ataza edo arazo horri irtenbide bat emateko euren artean nahitaez hitz egin, eztabaidatu edo ados jarri beharko dute; geroxeago ahoz bateratu diren iritzi horiek paperera eraman beharko dituzte, eta azkenik, jendaurrean, gainerako ikaskideen eta irakaslearen aurrean azaldu beharko dute lan taldean erabaki dutena. Taldean burutu beharreko lan hori, hizkera eredu ez-formal batean egitea da zentzuzkoena, geroxeago paperean jartzean kodez aldatuko dira eta, azkenik, euren erabakiak aurkezteko garaian, berriz, hizkera eredu formal bat erabili beharreko egoera batean geundeke, izan ere, ahoz esateko prestatutako testu idatzia da, kode mistokoa hain zuzen.

Beraz, arlo kurrikularrean hainbat egoera, ataza eta jarduera, osorik ez bada ere, zati batean hizkuntzaren erabilera ez-formalari dagokio. Egoera horiei etekina ateratzea litzateke kontua, ikasleak noiz egin hizkuntzaren erabilera formala eta noiz ez-formala jabetu daitezen.

Gainerako eremuetan, bestalde, zehaztu behar da noiz erabili aldaera familiar bat eta noiz ez. Segidan, arlo bakoitzeko irizpide orokor batzuk emango ditugu, aurreragoko beste batean are hobeto zehaztu eta findu bitartean.

Eremu ez-kurrikularrean.- Jolasaldietan, ez genuke dudarik izango eredu familiar bat erabiltzeko; era berean egingo genuke jantokian eta garraioan. Eskolaz kanpoko ekintzetan, berriz, ze ekintza mota den erabaki beharko da, bata ala bestea erabili. Gainera, begiraleen hizkuntz erabilerari ere erreparatu

¹⁹ Amondarain A., Aurrekoetxea M., Aldasoro M., Elorza I., Etxezarreta J. I., Garagorri X., Hernandez L., Lekuona I., Osa E., Soroa N., Uriarte J. A. (2002).

behar zaio arlo horretan. Irakasleen arteko hizkuntza-ekintzetan, halaber, askotariko egoerak izango dira formaltasun-mailaren arabera, esaterako, mintegia, klaustroa, atsedenaldia eta abar. Halakoetan gogoan izan behar dugu, harremana, konfiantza eta gaiaren arabera, bariazioa edo erregistro aldaketa ohikoa dela –zenbat bider ez gara hasten, bada, estandarrean hitz egiten eta euskalkira pasa elkarrizketa amaitzen ari dela adierazteko–.

Eremu instituzionalean, batetik, ikastetxearen antolaketa eta, bestetik, harremanak ditugu arlo nagusi. Ikastetxearen antolaketari erreparatzen hasita, lehen begiratuan behintzat, badirudi erabilera formalerako esparrua dela eta, beraz, aldaera estandar bat erabili beharko litzateke zeregin horietan. Hala ere, idatziz erabili beharreko eredu bakoitza bakoitzaren arabera erabili daiteke ahoz, betiere testuingurua kontuan hartuz.

Harremanetarako, halaber, familia tipologia kontuan hartzea ezinbestekoa da haiekin izan beharreko harreman-hizkuntza hautatzean. Izan ere, egoera formala da, aldaera estandar bat erabiltzeko modukoa, denok ulertzeko modukoa eta inguruko hizkeraren ezaugarriak biltzen dituen. Gurasoekin izaten ditugun harremanetan, gurasoek sentitu behar dute eskolako hizkera ez dagoela hain urrun euren hizkeratik baina, halere, ez dago askoz gehiago esaterik hemen, izan ere, solaskideak ezagutu ostean norberak erabaki beharreko kontua baita.

Gizartearekiko harremanetan, gure ustez, erakundeak udalerrikoak, eskualde edo ibarrekoak, lurraldekoak edo lurraldeartekoak diren erabaki beharko da zer eredu erabili, baina irizpide orokor gisa, erregistroei buruzko atalean aipatu ditugunak hartu beharko dira aintzat, azken batean, hiztun bakoitzak egoeraren eta aukeran dituen erregistroen arabera naturaltasunez egiten duena.

HIZKUNTZAREN ESKU-HARTZE EREMUAK

EREMU PEDAGOGIKOA		EREMU INSTITUZIONALA	
KURRIKULARRA	EZ KURRIKULARRA	IKASTETXEAREN ANTOLAKETA	HARREMANAK
KUDEAKETA PEDAGOGIKOA	INTERAKZIO DIDAKTIKOA	FAMILIA	GIZARTEA OROKORREAN
<p>Kurrikulu proiektua:</p> <p>1. Hizkuntza arloko curriculum integratua.</p> <p>2. Beste arloetako curriculumak: hizkuntzen trateraz instrumentala, globalizazioa, etab.</p> <p>Egitasmo osagarriak:</p> <p>1. Euskara eta euskal kultura.</p> <p>2. Zehar lerroak.</p> <p>Irakasleen prestakuntza planak: hizkuntza hobekuntza, metodologia etab.</p>	<p>Harremanak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Arlo bakoitzeko harreman hizkuntza. - Irakaslearen hizkuntza eredia eta hizkuntzekiko jarrera. - Irakasle / ikasle arteko hizkuntz erabilera eta kalitatea - Irakasle arteko hizkuntz erabilera eta kalitatea. <p>Baliabideak:</p> <p>1. Gelaren girotzea: hormurdiak, kartelak, etab.</p> <p>2. Informazio iturrien eta bestelako baliabideen hizkuntza.</p>	<p>1. Gobernu eta funtzionamendu organoak.</p> <p>2. Ekonomia, administrazioa eta dokumentazioa.</p> <p>3. Pertsonalaren hizkuntza profilak.</p> <p>4. Espazioen banaketa eta trateraz.</p> <p>5. Ikastetxeko errotulazio eta informazio guneak (errotulazioa, kartelak, iragarpen taulak, etab.).</p>	<p>1. Ikastetxearen eta gurasoen arteko harremanak, irakaslea, ikastetxea, etab.</p> <p>2. Familia barruko hizkuntza erabilera eta kalitatea.</p> <p>3. Administrazioarekiko harremanak.</p> <p>4. Bestelako harremanak.</p>

7. irudia

7. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE FAKTORE BATZUK²⁰

Txosten honetan proposatzen dena gauzatuko bada, ezin albora ditzakegu irakaskuntzaren elementu behinenak, besteak beste, irakasleak, ikasleak, gainerako profesionalak, material didaktikoa eta abar. Labur bada ere, haietako batzuk jorratuko ditugu:

7.1. Profesionalen prestakuntza eta jarrera

Tokian tokiko hizkera aintzat hartu nahi duen proiektu baten, ezinbesteko elementua dira irakasleak. Proiektua gauzatuko bada, profesional horien prestakuntza, bai dialektala, bai erregistroen ingurukoa, bai euskalkiaren aurrean erakusten duten jarrera eta sentsibiltatea, faktore erabakigarriak dira. Baina ez soilik irakasleena; ez dugu ahaztu behar, irakasleez gainera, gainerako profesionalak ere txitean-pitean harremanetan egoten direla ikasleekin.

7.2. Ikasleen jatorrizko ezaugarri linguistikoak.

Inguruak eskaintzen digun informazio soziolinguistikoa aintzat hartzea ezinbestekoa da hizkuntza erakusteko bidea antolatzen hasi baino lehen.

7.3. Arrazoi psikolinguistikoak

Umea eskolan sartu eta bertako hizkera ezin da izan etxeko hizkeratik oso berezia. Etxetik dakarrena aintzat hartzea eta begirunez tratatzea jarrera egokia da ikasleari konfiantza emateko. *Konstruktibismoa*, *Ikasketa Esanguratsua* eta

²⁰ J. Maia (2000).

Garapen hurbileko eremua kontzeptuetan oinarrituz, hizkuntzari buruzko jakintzak mailakatzean, eskolako edukien hurrenkeran lehenago etorri beharko lukete gehien erabiltzen diren perpausek eta bertako eskolaren inguruko hizkerak dituen bereizgarriek.

7.4. Arrazoi soziolinguistikoak

Besteak beste, inguruan zenbat euskalkidun dagoen, euskararen bizkortasuna aintzat hartu behar dira zein hizkera ereditik abiatuko garen erabakitzeke orduan. Ikusi *Eskolaren helburuak hizkuntza-ereduei dagokienez* atalean azaldutakoa.

7.5. Ahozkoa eta idatzia

Eskolan hizkera formalaren aldaera bat erabili behar da, dela euskalki literarioa, dela herriko edo eskualdeko euskara idatziratu, dela euskara batua. Baina ez pentsatu horregatik eskolan egiten den guztia erregistro formal horretan egin behar denik. Oro har, aditu guztiak bat datoz ahozko hizkeren protagonismo handiagoa behar dutela esatean. Hala, ahozko hizkuntzaren erabilera ez-formala denean, malguago jokatzeari proposatzen dugu (fonetismoak eta laburtzapenak onartuz). Kode idatzian, berriz, euskalkiaren eta herriko ezaugarriak onarturik ere, ahoz gertatzen diren fonetismoak ezarian-ezarian baztertzeraz jo behar da.

7.6. Material didaktikoa

Euskalkia aintzat hartu eta landu nahi duen proiektu batean ezin dugu ahantzi eskolan erabili beharreko materialean egin beharko lirakeen egokitzapenak. Gehienez, material didaktikoa hizkuntza-eredu baten aldaera formalean egiten da, eta praktikan, sarritan, testu-liburua bihurtzen da eskolako curriculum.

Haur Hezkuntzan erabiltzen den hizkuntzak balio afektibo handia izan behar du; hartara, haur hizkera eta haren ezaugarriak aintzat hartzeaz gainera, komeniko litzateke ahoz kontatu beharreko ipuinetan tokian tokiko hizkera kontuan hartzea. Urtxintxa proiektuko egileak, 2000. urteko Jardunaldi Pedagogikoetan, honela zioten Urtxintxa proiektuaren oinarriak azaltzean:

1.2.3. Herrialde guztietako erreferentziak jaso eta euskalkien presentzia ziurtatuko duena. Herrialde guztietako ikasleriak ulertu eta identifikatzeko moduko proposamena, erreferente ezberdinak kontenplatu, eta, euskara batuan idatzia egon arren, euskalki

desberdinen ulermen eta errespetua pizteko proposamenak txertatuz: honela, ipuinak hiru bertso ezberdinetan eskainiko zaizkio irakasleari kontaketa garaian tokian tokiko euskalkia erabiltzeko aukera izan dezan, eta, era berean, abesti, haur jolas, edo eta bertso tradizionalak aukeratzekoan, euskalki ezberdinen aberastasuna bildu nahi izan da²¹.

Beraz, ikasmaterialen egileek beraiek diotenez, komeniko litzateke umeekin zuzenean erabili behar dugun material horren bertsoia eredu familiarretik al bait gertueneko eredu eskaintzea.

²¹ I. Elorza eta M. Saenz, Urtxintxa Proiektua: Haur Hezkuntzarako curriculum proiektua, in VII. Jardunaldi Pedagogikoak (2000).

8. EREMU ERDALDUNAK

8.1. Zalantzak hizkera ereduarekin

Leku askotan zalantzan ibiliko gara erregistro bakoitzean bultzatu beharreko ereduak hautatzerakoan. Ikastola bakoitzeko partaideek, irakasleek hausnartu beharko dute gai horren inguruan, bai eta erabaki ere zein eredu erabiliko dugun esparru ez-formalean, eta zein formalean. Eta batean eta bestean, nolako ahoskera eskainiko dugun eredu gisa (arduragabea, estandarra, zaindua...).

Euskalki berezirik ez duten eremuetan edo aspaldi galdua duten eremuetan, alferrik hasiko gara euskalki erreferentzial baten bila inguruotan. Hala ere, Koldo Zuazoren proposamena oso egokia izan liteke, esparru formaleko eta ez-formaleko hizkerak bereizteko:

(...) Gaur egun, ostera, asko dira, euskalkian gabe, euskara batuan jαιο, hazi eta hezi diren euskaldunak, eta horiek ere ezinbestekoak dituzte egoera eta esparru bakoitzeko hizkera egokiak. Hankamotz daude, ordea. Orain arte eraiki den euskara batua esparru jasoetarako izan da; irakaskuntzan, liburuetan, hedabideetan, administrazioan edo tankera horretako jardunean erabiltzekoa.

Etorkizunari begira diot, beraz, lagunarteko batua hedatzea komeni da. ‘Hedatu’ diot, eta ez ‘sortu’, sortuta dagoelako dagoeneko. Badira hainbat hiztun, euskara ikasitakoak edo euskara ikasitakoen etxeetan jaiokak direnak, eta hizkera hori badarabiltenak. Batuan dihardute, ez hango edo hemengo euskalkian, baina ezta batu jasoan eta jantzian ere.

Ohikoak dira lagunarteko batuaren ezaugarriak, lagunarteko euskalkiaren berberak:

- a. Hitzak laburtzea: egin → ein.
- b. Hitzak bata bestearekin lotzea: egin zuen → eintzuen.
- c. Zenbait arau fonologiko gauzatzea: lorea → loria, beroa → berua, irina → iriña...

- d. Lexikoa eta esapideak bereiztea: kristona vs egundokoa, ospa egin vs alde egin...
- e. Hitanoa baliatzea.²²

Gogoan hartu behar dugu, orobat, hemen ari garela batez ere irakasleek, profesionalak eta ikasleen aurrean jarduten duten gainerako kideek erabili eta bultzatu beharreko ereduaz. Azken batean, beraiek dira ikasleen lehen erreferentea. Hau da, predikatu ez ezik, praktikatu ere egin behar da ikasleen aurrean. Horrekin esan nahi dugu ezin diegula irakatsi gazteei euren hizkerak edo argotak zein izan behar duen, baina bai, norberarengandik hasita, egoerari ondoen egokitzen zaion erregistroa erabiliz arrasto batzuk eman. Garbi dago, noski, ikasle bakoitzaren esku egongo dela beti zer nolako euskara egingo duen egoera bakoitzean.

Halaber, irakasle eta gainerako profesionalen esku dago egoera informaletan aldaera informala erabiltzea, egoera formaleko ereduaren alboan alde nabarmena izango duena. Bestetik, eskolako jarduera akademikoaren barruan, lehen esan dugunez, elkarriketa landu beharreko gaia da, eta horretarako antzerkia eta rol jokoak oso baliagarri izango zaizkigu. Kontua ez da ikasleei zehatz esatea nola jardun behar duten hizkera informalean, baizik eta antzerki eta rol jokoen gidoiak prestatzen hasten direnean irizpide orokor batzuk ematea (hizkera arduragabea dela, hitzak laburtzea, silabak jatea...) eta haiek sortuko dute. Antzera baten aritzen dira SMS mezuekin, inork ezertxo ere esan gabe.

8.2. Euskararen erabilera vs erregistroak

Badakigu oso neketsua dela eremu erdaldunetan euskararen erabilera indartzea. Eta zentzuzkoak dira, orobat, bertako irakasleek helarazi dizkiguten kezkak. Izan ere, zenbaiten ustez, lehen-lehenik erabilera bultzatu behar da, bai eremu euskaldunetan, bai erdaldunetan, eta, hala, erabileraren alde sentsibilizazioan eta motibazioan lan eginez, erabileraren poderioz gutxika-gutxika umeez eta gazteez hartuko dituzte erregistro ezberdinak, euskara-molde ezberdinak, adierazkortasuna, esan-indarra... Bai, noski, lehen-lehenik erabili egin behar da horrela ikasten baita, baina gogoan izan behar dugu irakasleok eta gainerako profesionalok gure eguneroko jardunean ez badugu erregistrorik bereizten are gutxiago egingo dutela gure ikasleek. Hain zuzen, gure ikasleei erakutsi behar diegu ez dela euskara berberaz

²² Zuazo (2005).

baliatu behar egoera guztietan, horixe delako naturala, munduko hizkuntza guztietan bezala. Hala ere, profesionalok erregistro bereizketa hori egin eta horren arabera erabiltzeak ez du esan nahi erabilera lehenetsi behar ez dugunik.

Dudarik ez izan, halaber, baliabide gehiago edo gutxiago izatea ez dagoela egiten den hizkeraren moldearen baitan, baizik eta zenbat eta gehiago erabili, orduan eta baliabide gehiago izango dute, eta erosoago eta errazago moldatuko dira euskaraz. Baina, lehenik eta behin, egoera desberdinetan hizkera desberdinak erabili behar direla argi izan behar dute.

Bestalde, jorratzen ari garen arazoari irtenbide bat bilatzeko, ez dirudi zentzuzkoa denik eremu erdalduneko Ikastolak ingurunearekin lotura eduki behar duela esatea. Berriri diogu, hala ere, ia toki guztietan antzematen dugun funtsezko arazoa dela, izan ere, erregistroak ez bereiztea eta horren ondorioz egoera guztietan hizkera molde berbera erabiltzea. Eremu erdaldunetan, garbi dago, ezin gara mugatu inguru hurbileko arrazoi psikolinguistiko eta soziolinguistikoei begiratzera gure jardunbide guztien arrazoibidea azaltzeko, baina bai aurkitu dezakegu arrazoibide hori euskal munduaren arrazoi psikolinguistiko eta soziolinguistikoetan eta bestelako arrazoi ideologikoetan hezkuntza euskalduna eta euskaltzalea garatzea eta gauzatzea erabaki dugun une beretik.

Amaiera gisa

Txostenean gabezia orokor batzuk jorratzen dira eta haiei konponbide jakin batzuk ematekotan oinarri teoriko-praktiko batzuk non aurki ditzakegun eskaini nahi izan dugu. Ez dugu inolaz ere errealitatearen argazki okerrik atera edo ikuspegi ezkorra zabaldu nahi. Hizkuntza baten erabilera, hain zuzen, erabiltzen denean aztertzen da, eta txosten honetara ekarri ditugun gabeziak hizkuntza erabili egiten delako antzeman ditzakegu, eta hori benetan pozgarria da.

Hemengo hau marko bat da, orientabideak, proposamen irekia, baina ez da derrigorrean bete beharreko araua. Beraz, ikastola bakoitzak zehaztu eta erabaki beharko luke egoera ez-formal eta formalean zer nolako hizkera moldea erabili, beti ere profesional guztien arteko gutxieneko adostasun eta koherentzia ziurtatuz.

BIBLIOGRAFIA

- AGIRRE, Jon: “Euskalkien erabilera eta idazkera”, in Euskaltzaindiaren XV. Biltzarra, Bilbo, 2001.
- AGIRRE, J.M.; EGUZKITZA, I.; IDIAZABAL, I.; LARRINGAN, L.M.: *Euskarazko irakaskuntza Bizkaian: Arazoak eta zenbait proposamen*, Desclée de Brouwer, Bilbo, 1985.
- AMONARRIZ, K.; ARRUTI, I.; OSA, E.: “Ahozketasuna eremu ez-kurrikularrean hizkuntza proiektuaren markoan”, in *BAT* 51, 2004.
- AMORRORTU, E.: “Hizkuntz aldakortasuna eta identitatea”, in *Ahozketasuna aztergai*, Mendebalde Kultura Alkartea, Bilbo, 2003.
- BARRUSO, A.: “Eskolan: Batua? Euskalkia? Biak?”, in *Euskalkia eta Hezkuntza*, Mendebalde Kultur Alkartea, Bilbo, 2001.
- BENGOETXEA MUJICA, X.: “Irakaskuntzako Hizkera Moldea”, in *BAT* 49, 2003.
- BRONCKART, J. P.: *Fonctionnement, normes et connaissances. Contribution à une clarification conceptuelle*, in EUSKO JAURLARITZA, II. Liburukia, 47-62. or., 1988.
- ELORZA, Itziar; SAENZ, Maite: “Urtxintxa proiektua: Haur Hezkuntzarako Curriculum Proiektua”, in *VII. Jardunaldi Pedagogikoak*, Ikastolen Elkartea, Gasteiz, 2000.
- EIZAGIRRE, M^a Carmen; RUIZ DE EGINO, Mertxe: “Irakurketa-idazketa prozesua Haur Hezkuntzan”, in *VIII. Jardunaldi Pedagogikoak*, Ikastolen Elkartea, Gasteiz, 2001.
- EUSKALTERM. Terminologia Banku Publikoa, «http://www1.euskadi.net/euskalterm/indice_e.htm».
- EUSKALTZAINDIA: “Euskara batua, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak”, in *Euskera* 24, 103-106 or, 1979. Liburu honetara bilduma: 77-83. orr.
- EUSKALTZAINDIA: “Euskara batua eta euskalkiak irakaskuntzan”, in *Euskera* 24, 1979-2, 697-698 or, 1979. Liburu honetara bilduma: 84-85. orr.
- EUSKALTZAINDIA: “Adierazpena Euskalkien erabileraz Irakaskuntzan, Komunikabideetan eta Administrazioan”, 2004. Liburu honetara bilduma: 86-91. orr.

- EUSKO JAURLARITZA. EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA: *Euskararen kalitatea. Zertaz ari garen, zergatik eta zertarako*, 2004.
- EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA: *Oinarrizko Curriculum Diseinua. Haur Hezkuntza*, Gasteiz, EJAZN, 1992.
- EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA: *Oinarrizko Curriculum Diseinua. Lehen Hezkuntza*, Gasteiz, EJAZN, 1992.
- EUSKO JAURLARITZA. EUSKARA ZERBITZUA: *Irakasleen euskalduntzea. HE2rako curriculuma (4000 eta 5000 atalak)*, 1997.
- GAMINDE I.; GOIKOETXEA J.L.: “Ahozko Corpusen premia eta euron erabilgarritasuna eskolan”, in *Abozkotasuna aztergai*, Mendebalde Kultura Alkartea, Bilbo, 2003.
- GARZIA GARMENDIA, J.: *Gaur egungo bertsolarien baliabide poetiko-erretorikoak dokortesia*, 1999.
- GOIKOETXEA ARRIETA, J.L.: *Euskalkia eta Hezkuntza. Dakigunetik ez dakigunera. Euskal Diglosia Irastian*. Iker-13, Euskaltzaindia, 2003.
- HABE: *Ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako erreferentzia markoa*, 2005. Jatorrizkoa: Europako Kontseilua, 2001.
- IKASTOLEN ELKARTEA: *Ikastola aldizkaria*, 74. zk., 1998.
- ISEI-IVEI: *Euskararen B2 maila. Derrigorrezko irakaskuntzaren amaieran (DBH-4)*, 2005.
- LARRINAGA, A.: “Hizkuntz aldaerak telebistan”, in *Euskaltzaindiaren XV. Biltzarra*. Agiriak 2008.
- LOPEZ DEL CASTILLO, LL.: *Quina llengua i quina escola*, Aliorna, Bartzelona, 1988.
- MAIA LARRETXEA J.: *Eskolako hizkera ereduaz, euskara batuaren eta euskalkiaren arteko barremanen testuinguruan*, Dokortesia, 2000.
- MENDIGUREN BEREZIARTU, X.: “Euskararen hizkuntz ereduaz eta kalitateaz zenbait gogoeta”, in *Euskera* 41, 3, 1996.
- MUÑO A, I.: “Zergaitik eta zertarako erabiltzen ditugu euskara eta gaztelera solasaldi berean?”, in *BAT* 42, 2002.
- OLAZIREGI, I.: “Euskararen kalitateaz eta abarrez”, in *BAT* 49, 2003.
- OSA, E.: “Ikastolan eta eskolan euskararen erabilera indartzeaz gogoeta”, in *BAT* 49, 2003.
- OSA, E.; ELORZA, I.: “Hizkuntza Proiektua definitzeko Oinarriak”, in *Euskararen erabilera, Ikastolen IX. Jardunaldi pedagogikoak*, Donostia, 2002.
- RAE: Real Academia Española. Diccionario de la Real Academia Española. «<http://www.rae.es/>»
- SARASOLA, I.: *Euskal Hiztegia*, Kutxa Gizarte eta Kultur Fundazioa. Gipuzkoa Donostia Kutxaren Gizarte Ekintza. Donostia, 1996.

- ZALBIDE, M.: “Ahuldutako hizkuntza indarberritzea: teoriak zer dio?”, in *Ikastolen IX. Jardunaldi Pedagogikoak*, 2002.
- ZENBAITEN ARTEAN: *Ikastolen Hizkuntz Proiektua Definitzen*, 2002.
- ZENBAITEN ARTEAN: “Euskalkien trataera Iparraldeko ikastoletan”, in *Euskalkia eta Hezkuntza*, Mendebalde Kultura Alkartea, Bilbo, 2001.
- ZENBAITEN ARTEAN: *Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculuma. Baloratzeko eta hobetzeko proposamena*, 2006.
- ZUAZO, K.: *Euskararen sendabelarrak*, Alberdania, 2000.
- ZUAZO, K.: *Euskalkiak. Herriaren lekukoak*, Elkar, 2003.
- ZUAZO, K.: *Euskara Batua. Ezina ekinez egina*, Elkar, 2005.

ERANSKINAK

EUSKALTZAINDIAK EUSKERA BATUAZ ETA EUSKALKIEZ EGIN DITUEN ADIERAZPENAK:

- I. Euskara batua, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak.
- II. El euskara común, los dialectos y las hablas locales.
- III. Euskara batua eta euskalkiak irakaskuntzan.
I- Adierazpenaren osagarria.
- IV. Euskalkien erabileraz Irakaskuntzan, Komunikabideetan eta Administrazioan. Euskaltzaindiaren 137. araua.

I. EUSKARA BATUA, EUSKALKIAK ETA TOKIAN TOKIKO HIZKERAK²³

Euskaltzaindiaren VIII. Biltzarreko Adierazpenak, bere 5. puntuan, honela dio:

Euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak aztertu eta landu behar direla uste du Euskaltzaindiak, ortografia eta hizkuntzaren azpiegitura zainduz.

Agiriaren beharra. Maiz entzun eta irakurri ohi da Euskaltzaindia euskara batuaren alde eta herriko euskararen eta euskalkien etsai bihurtu dela. Euskararen batasuna helburu bat guztiz opagarria izanik ere, horren aurretik dardela euskalkiak; beraz, horietatik hasi behar dela, batasuna azkeneko eta urruneko jomuga besterik ez dela, eta jomuga hori euskalkien bidez eta euskalkietan barna bilatu behar dela, etab.

Horiek horrela, beharrezko gertatzen zen oinarrizko auzi honetan Euskaltzaindiak bere jarrera eta burua ager zezan. Eta hain zuzen, hori egin nahi izan du Adierazpeneko 5. puntua eman duenean, eta bai horren segida eta hazkunde den Agiri hau ematean ere.

Adierazpen horretan tokian tokiko hizkerak eta euskalkiak aztertu eta landu behar direlako ustearen alde jartzen da Euskaltzaindia. Beraz, bego hau argi eta garbi eta goraki aitortua.

Bi eranskin edo baldintza ipintzen dira, hala eta guztiz ere -beharrezkoak baitira, euskalkien lantze hori onerako, eta ez kalterako, gerta dadin: 1) Ortografia, eta 2) Hizkuntzaren azpiegitura zaintzea.

Ortografia bakarra. Ortografia zaintzearen ohar horrek ez du esplikazio handirik behar. Euskara hizkuntza bat da, eta ez hizkuntza asko. Hizkuntza oso-

²³ 1979ko martxoan onartua (*Euskera* 24, 103-106).

arentzat ortografia bat onartua denez gero, begien bistan da ortografia bakar hori erabili behar dela bai euskalkietan, eta bai euskara batuan ere.

Ez dira, bada, arrazoizko inoiz entzun ohi diren argudioak: “Euskalkietan idazten denean H letra ez da erabili behar: hori euskara baturako da”. Edo: “Euskara batuan bustiduren grafiak ez dira jartzen, baina euskalkian bai”. Etab.

Hizkuntzaren barnean ortografia bat baino gehiago erabiltzeari kaltegarri deritza Euskaltzaindiak. Hori da, gainera, euskalkiak eta euskara batua hizkuntza desberdinak bezala jotzea.

Honekin ez dugu ukatu nahi, bestalde, salbuespenak egon daitezkeela. Adibidez, linguistika lanetan eta toki jakin bateko euskara den bezala jaso nahi denean bidezko izan daiteke H ez jartzea, edo Z eta S ez bereiztea, bustiduren grafiak jartzea, etab. Orobat, herri mailako literatur mota batzuetan H ez erabiltzea edo puntuazio marka berezi batzuk jarri behar izatea gerta daitekeena da, eta Euskaltzaindiak ez du deus horren kontra. Beste arrazoi berezi bat ere bada, bertsolaritza, dagoen horretan, alegia, bere fonetismo guztiekin, argitaratzeko. Bertsolaritzak ahozko hizkera baitu bere oinarria; eta hitzak gramatikatzen hasiz gero, neurria eta puntua galdu egingo lirarteke askotan. Baina lege orokor bezala honako hau hartzen du Euskaltzaindiak, oinarritzko baita, hots: Euskara hizkuntza bat dela eta ez hizkuntza asko, eta hizkuntza horretan ortografia bat bakarra behar dela, bai euskara batuan eta bai euskalkietan.

Hizkuntzaren azpiegitura edo euskararen oinarri batua. Bigarren oharrak, berriz, honela dio: euskalkiak lantzean hizkuntzaren azpiegitura zaindu behar dela. Adieraz dezagun laburki horrekin zer esan nahi den:

Euskaltzaindiak uste du, eta hori ez da uste hutsa zehazki frogatu daitekeen iritzia baizik, badela oraindik, lehen ere izan den bezalaxe, euskara bakar bat euskalkien ñabardurak estaltzen eta itxuraldatzen ez duena. Euskalkien eta tokian tokiko hizkeren arteko bereizkuntzak, egungo egunean ere, axaleko itxuraldatzeak dira batik bat, hizkuntzaren muin sakona bere iraunkor hartan uzten dutenak. Hizkuntzaren oinarri batu hori, eta oinarri horren egitura (euskalki guztien egitura komuna), dira beti gogoan eduki behar ditugunak, gure ahaleginak euskararen batera-biderako, eta ez bereizirik daudenen sakabanatzeko, izan daitezen (Mitxelena).

Ikuspegi honen arabera, euskara batua ez da bakarrik urruneko jomuga bat edo guztiz eginkizun den helburu bat. Aitzitik, euskara berez ere bat eta batua da, eta batasun horren seinaleak bere errailetan daramatza.

Beste hitzez esanik, euskalkiak baino lehen, eta horien azpitik edo gainetik -nahi den bezala-, hor da euskara batu hori. Beraz, euskara batua erabat hizkera artifiziala eta asmatua delako uste hori, ez da uste zuzena. Euskalkiak baino lehen hor da euskara. Eta euskara hori helburuan baino areago abiapuntuan aurkitzen da; iraganean, etorkizunean baino gehiago. Zuhaitzek ez diezagutela basoaren ikusbidea galaraz, otoi.

Euskalkien axaleko ñabarduren gainetik hor da hizkuntzaren muin sakon eta iraunkor hori, hizkuntzaren oinarri batua, alegia, eta hori da beti gogoan eduki behar duguna, baita euskalkiak lantzen direnean ere.

Hizkuntzaren oinarri batu horretaz jabetzeko, ordea, txit komenigarri da norberaren euskalkiaz gainera besteren bat ere ezagutzea eta euskara bere osotasunean hartzea. Zeren orduan, eta orduan bakarrik, ikasten baitugu euskalki eta toki bateko hizkeran aurkitzen diren fenomeno guztiak ez direla maila berean jartzekoak eta ez zaiela denei balio berdina aitortu behar. Badira, alegia, zenbait gauza euskara bakar horren agergerri eta adierazle direnak, eta badira halaber axaleko itxuraldatzeak, zoko bateko eta beranduko agerpideak, etab.

Euskalkia lantzen duenak nolabait jakin behar luke hori, hizkuntzaren oinarri batuari leialtasuna gorde diezaion. Bestela, gerta daiteke -eta sarri gertatzen da gaur-, euskalkien aitzakiaz hizkuntzaren barnean hesiak gero eta gogorrago bihurtzea, elkarganatu beharrean bata bestetik urrunduz joatea. Eta joera zatikatzaile hori Euskaltzaindiak ez dezakeela onar esan beharrik ez dago.

Hemen ez ditugu xeheki eta banaka-banaka aipatuko euskararen muin sakon horri dagozkion gauza guztiak, asko baitira. Adibide bat edo beste bakarrik jartzen dugu: deklinabide mugagabea, “a” organikoaz bukatutako hitzak, euskalki guztietan legezko den aditz-jokoa eta euskal hitzurrena.

Euskaltzaindiak, bada, uste du hizkuntzaren oinarri batu horri kasu eman behar zaiola euskalkiak lantzean. Bestela hizkuntzaren batasuna arriskuan jar daiteke.

II. EL EUSKARA COMUN, LOS DIALECTOS Y LAS HABLAS LOCALES²⁴

Declaración de la Real Academia de la Lengua Vasca “Euskaltzaindia”:

La Resolución del VIII Congreso de la Academia, en su 5.º punto, dice así: “La Academia estima que los dialectos y hablas locales deben ser objeto de estudio y de cultivo, respetando la ortografía y la estructura subyacente (*underlying*) del idioma”.

Urgencia de esta Declaración. Con frecuencia se oyen y leen razonamientos como los siguientes, a saber: que la Academia se ha definido por el euskara unificado y por ende ha vuelto la espalda al euskara popular a los dialectos. Que aun cuando el euskara unificado sea un objetivo deseable, antes que él están los dialectos; que es preciso, por tanto, partir de éstos. Que la unificación no es más que una meta última y lejana y que hay que caminar hacia esa meta partiendo de los dialectos y a través de los mismos, etc.

En vista de estos slogans que se esparcen se hacía preciso que la Academia expresara su posición y actitud ante el problema. Y esto es justamente lo que ha querido hacer al aprobar el citado 5.º punto de la Resolución de Vergara e igualmente al preparar la actual Declaración, que no es otra cosa que continuación y desarrollo del dicho 5.º punto.

En la citada Resolución la Academia toma posición en pro del estudio y cultivo de las hablas locales y de los dialectos. Quede, pues, claro que ésta es la inequívoca postura de la Academia.

Sin embargo, se añaden dos precisiones o condiciones, por juzgarlas necesarias para que el cultivo de los dialectos sea de signo positivo y no negativo, para la lengua. Estas dos condiciones son el respeto a la Ortografía y a la infraestructura de la lengua.

²⁴ Declaración aprobada en la sesión celebrada en San Sebastián el 30 de marzo de 1979 (*Euskera* 24, 107-110).

Unidad ortográfica. La necesidad de que se guarde la ortografía no requiere grandes explicaciones ni justificaciones. El euskara es un solo idioma y no una multiplicidad de idiomas. Una vez que se ha adoptado una ortografía para la lengua, es evidente que esa ortografía única debe ser empleada tanto en los dialectos como en el euskara unificado.

No son pues sostenibles los razonamientos que a veces se alegan: “Cuando se escribe en dialecto no se debe emplear la letra “H”; eso queda para el euskara unificado o común”. O bien: “En el euskara unificado no se ponen los signos de las palatalizaciones, pero en el dialecto, sí”, etc.

La Academia juzga que es pernicioso para el idioma el emplear diversas ortografías dentro del mismo. Además eso es tratar los dialectos y el euskara común como si fueran lenguas diferentes.

Con esto, por otra parte, no queremos ignorar que puede haber salvedades. Por ejemplo, en trabajos de investigación, en que se trata de presentar un habla local tal como es, puede estar justificado el no emplear la “H”, o el no distinguir la “Z” y la “S”, el poner los signos de los sonidos palatales, etc. Igualmente, en ciertos géneros de literatura popular puede ser lícito el no servirse de la “H” o el recurrir a signos gráficos especiales; la Academia no tiene nada que alegar contra ello. No hay duda, tampoco, que existen razones válidas para que los trabajos de los bertsoaris se publiquen tal y como son, con sus fonetismos peculiares, ya que este género se basa en el habla oral, y si se gramaticalizaran las palabras, se perturbaría muchas veces la rima o la medida de las sílabas.

Pero como principio general la Academia establece lo siguiente: que el euskara es un solo idioma y no varios, y que dentro de ese único idioma debe observarse una única ortografía, tanto en el euskara unificado como en los dialectos.

La estructura subyacente de la lengua o fondo común del euskara. La segunda salvedad dice textualmente: “Al cultivar los dialectos se debe respetar la estructura subyacente de la lengua”. Expongamos brevemente qué es lo que se quiere dar a entender con esto:

La Academia opina —y esto no es una mera opinión sino un dictamen que puede demostrarse rigurosamente—, que existe todavía, como ha existido en el pasado, un euskara único, que no ha sido recubierto ni transformado por las variedades dialectales. Las particularidades de los dialectos y de las hablas locales, aun hoy en día, son más que otra cosa transformaciones superficiales, que dejan intacta la esencia profunda y perenne del idioma. Este fondo común de la lengua y la estructura de dicho fondo —que es a su vez la estructura común de todos los dialectos—, es lo que siempre habrá de tenerse en cuenta, si queremos que nuestros

esfuerzos se encaminen hacia la unificación, y no hacia una mayor dispersión de los diversos dialectos (Mich.).

En conformidad con esta perspectiva, el euskara unificado no es solamente un objetivo lejano o una meta que está totalmente por alcanzar. Al contrario, el euskara de suyo es ya uno y se halla unido en su fondo, y las señales de esta unidad aparecen claras en su estructura.

Dicho con otras palabras: antes que los dialectos, por debajo o por encima —como se quiera— de ellos, nos encontramos con el euskara uno. Por tanto, la opinión de que el euskara unificado es un lenguaje artificial o totalmente inventado, no es conforme a la verdad. Antes que los dialectos se halla el euskara. Más bien que en el punto de llegada el euskara se encuentra en el punto de partida; en el pasado, más bien que en el futuro. Los árboles no deben impedirnos ver el bosque.

Por encima de las particularidades superficiales de los dialectos se halla la sustancia profunda y permanente del idioma, el fondo común de éste. A este fondo común se debe prestar atención preferente, incluso cuando se cultivan los dialectos.

Mas para poder reparar en este fondo común de la lengua es altamente conveniente que, además del propio dialecto nativo, se conozca algún otro y se atienda a la totalidad de la lengua. Porque entonces, y sólo entonces, caemos en la cuenta de que no todos los fenómenos que se dan en un determinado dialecto o habla local deben ser justipreciados y valorados igualmente. Mientras unas particularidades son propiedades y manifestaciones del euskara único, otras, por el contrario, son diferenciaciones superficiales, de carácter local o tardío, etc.

El que cultiva el dialecto debería ser consciente de algún modo de todo esto, a fin de que se mantenga fiel a esa sustancia común del idioma. De otro modo, puede ocurrir —y ocurre hoy con frecuencia—, que con el pretexto de los dialectos se estén haciendo cada vez más espesos e insalvables los tabiques existentes dentro de la misma lengua; o sea, que en vez de aproximarse las variedades, se alejen mutuamente cada vez más. Es claro que la Academia no puede favorecer esta tendencia a la dispersión.

No vamos a mencionar individualmente todos los hechos que revelan o pertenecen a ese fondo común, ya que son muchos. Indicaremos alguno que otro como botón de muestra: la declinación indefinida, las palabras que terminan con “a” orgánica, el juego de los tiempos verbales que subyace a todos los dialectos y la ordenación típica de las palabras en euskara.

La Academia estima, por consiguiente, que se debe prestar una atención preferente a este fondo común de la lengua al cultivar los dialectos. De otro modo podría ponerse en peligro la unidad de la lengua.

III. EUSKARA BATUA ETA EUSKALKIAK IRAKASKUNTZAN²⁵

Tokian tokiko hizkera dakiten haur eta nagusiei euskara batua irakastea, sarritan, ez dira oso kontutan hartu izan ohi batetik besterako bidea egiteko nahitaez eman behar diren urratsak, eta ondorioz, elkar osagarri eta bizigarri izan beharko luketenok benetako zubirik gabe geratu ohi dira, bion kaltetan gainera.

Pedagogiazko orientabideak ematea, Euskaltzaindiari zuzenki ez badagokio ere, auzi honek euskararen sendotzean eta hedatzean duen eraginarengatik, biziki gomendatzen du, tokian tokiko euskara zenbat eta urrunago geratzen den euskara batutik, hainbat eta arreta handiagoz elkar osatze bidea zain eta lant dadin.

Azken helburu nagusi eta bakarra euskara biziaraztea, sendotzea eta hedatzea delarik, inola ere ezin pentsa daiteke tokian tokiko euskara eta euskara batua elkarren aurkako gerta litezkeenik, baizik eta bata bestearen nahitaezko osagarri eta aberasgarri direla zinez.

Hau honela delarik ere, tokian tokiko euskarak dituen desberdintasun eta ñabardurak ugari direla gogoan edukirik, lehen aipaturiko adierazpenean zioena bera berresaten du Euskaltzaindiak, alegia, tokian tokiko euskara eta euskalkia aintzakotzat hartzean eta lantzean, hizkuntzaren oinarri batuari leialtasuna gorde behar zaiola, euskalkiak indartzearen aitzakiaz joera zatikatzaile batetan gal ez gaitzen.

Bestalde, euskalki desberdinetako literatur ereduak ezagutzera emateko eta irakasleen eginkizuna errazteko asmoz, Euskaltzaindiak berehala ekingo dio euskalkietako idazleen antologia bat eragiteari eta argitara emateari.

Azkenik, argi eta garbi utzi nahi du Euskaltzaindiak, bere garaian harturiko erabakiak eta egindako gomendio jakinak salbu, oraindik urrats asko

²⁵ 1979ko irailean onartua (*Euskera* 24, 697-698).

dagoela euskara batua burutzeko eta inork ez duela euskara batua omen delako baten monopoliorik. Beraz, idazleak eta irakasleak bere eskuko dira tradizio ongi ezagutu baten ildotik, pedagogiazko eta literatur adierazpeneko premien arabera, nork bere euskal sen hoberenaren argitan jokatzeko, euskararen funtsezko oinarri batu horrekiko leialtasunean.

IV. EUSKALKIEN ERABILERAZ IRAKASKUNTZAN, KOMUNIKABIDEETAN ETA ADMINISTRAZIOAN²⁶

Euskaltzaindiaren 137. araua

Aurrekariak

«Euskalkiak baino lehen, hor da euskara». Adierazpen hori Euskaltzaindiak egina da, 1979an, “Euskara batua, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak” izeneko agirian (ikus *Euskera*, XXIV. liburukia, 1979-1, 103-106. or.). Agiri horretantxe datoz ondorengo xehetasunok ere:

Euskaltzaindiak uste du, eta hori ez da uste hutsa, zehazki froga daitekeen iritzia baizik, badela oraïndik, lehen ere izan den bezalaxe, euskara bakar bat euskalkien ñabardurak estaltzen eta itxuraldatzen ez duena. Euskalkien eta tokian tokiko hizkeren arteko bereizkuntzak, egungo egunean ere, axaleko itxuraldatzeak dira batik bat, hizkuntzaren muin sakona bere iraunkor hartan uzten dutenak. Hizkuntzaren oinarri batu hori, eta oinarri horren egitura (euskalki guztien egitura komuna) dira beti gogoan eduki behar ditugunak, gure ahaleginak euskararen batera-biderako, eta ez berezirik daudenen sakabanatzeko, izan daitezen.

Horretarako, «euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak aztertu eta landu behar direla uste du Euskaltzaindiak, ortografia eta hizkuntzaren azpiegitura zainduz».

Bergarako Biltzarreko adierazpenean ere horixe bera aldarrikatu zuen Euskaltzaindiak, eta salatu egin zituen, gainera, auzi honetan kaltegarri gertatzen

²⁶ 2004ko martxoan onartua (*Euskera* 49, 426-429).

diren bi jokaerak: batetik, euskarazko hizkuntza-agerpen guztiak baztertzea, besterik gabe, agerpen horietan euskalkiak erabiltzen direlako; bestetik, euskalkia erabiltzeko aitzakiarekin, badaezpadako euskara erabiltzea, Euskaltzaindiak zehazten dituen arau eta gomendioetatik guztiz aldentuta.

Bigarren jokaera kaltegarri hori saihesteko, euskalkiak erabiltzerakoan nahitaez bete beharreko baldintza bi ezarri zituen Euskaltzaindiak 1979an (ikus “Euskara batua, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak”):

- a) Idatzian, ortografia bakarra onartuko da batuan nahiz euskalkietan; izan ere, euskara hizkuntza bakarra baita, ez hizkuntza asko. Horregatik, Euskaltzaindiak ortografiaren batasunerako eskaini dituen erabaki eta proposamen guzti-guztiak bete behar dira euskalkietan idaztean ere.
- b) Idatziz nahiz ahoz, hizkuntzaren azpiegituraren arabera (euskararen oinarri bakarraren arabera) jardun behar da beti. Euskararen muin horri dagozkio deklinabide mugagabea, “-a” organikoz bukatutako hitzak, euskalki guztietan legezko den aditz -jokoa, euskal hitzurrena eta abar.

Harrezkero, garatu egin zen euskararen estatusa, hizkuntza ofiziala izateraino (gaztelaniarekin batera) Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Erkidegoan, eta hamaika esparrutara zabaldu zen euskara: hala nola, herri-administrazioa, hezkuntzara eta komunikabideetara. Egoera berri haren aurrean, Euskaltzaindiak, euskalkien erabilera eguneratu eta sistematzatu beharrez, beste adierazpen bat egin zuen 1994an, “Euskalkien erabilera Administrazioko 1. eta 2. hizkuntz eskakizunetan” izeneko agirian (ikus *Euskerak*, 1995, 2-3, 40. liburukia, 1019-1024. or.). Bertan, “Eranskina” delako atalean ageri denez, honako irizpide orokor hauek finkatu eta proposatu zituen Euskaltzaindiak, euskalkian idazten denerako:

1. Ahozkoan eta lagunarteko hizketan ohikoak diren laburtzapenak gaitzetsi egin zituen.
2. Tokian tokiko fonetismo bereziak gaitzetsi egin zituen.
3. Euskalkian forma bi edo gehiago erabiltzen direnean, batuarekin bat datorrena hobetsi zuen.
4. Batasunerako erabaki den deklinabidea derrigorrezkotzat jo zuen, baina bizkaierazko zenbait forma berezi ere ontzat emanez.
5. Batasunerako erabaki den aditz -jokoa derrigorrezkotzat jo zuen, baina euskalkiko forma batutzat har daitezkeenak ere ontzat emanez.
6. Euskara batuko eta euskalkietako sintaxi-zuzentasuna bat bera dela aitortu zuen.

7. Morfologian, hitzen forma dialektal tradizioudunak ere (*bakotxa, barri, burruka, edur, elexa, parkatu ...*) ontzat eman zituen.

Agiri horretan, gainera, Euskaltzaindia kezkatu azaldu zen Administrazio-ko 1. hizkuntza-eskakizuneko azterketetan garrantzi eta pisu handiegia ematen zitzaiolako idatzizko probari, ahozko trebetasunaren kaltean.

Zioen azalpena

Euskaltzaindiak jakin badaki bere proposamenak ez direla inola ere behar moduan hartu behar, ezta hurrik eman ere. Hala ere, hiztun batzuek, noizean behin eta okerretara, baztertuta ikusten dute euren burua, bizi duten euskalkia euskara batutik urrun dagoelako; baina ez dute bazterturik sentitu behar. Euskaltzaindiak, behintzat, ez du horrelako bazterkeriarik nahi; baizik eta nahi du euskaldun bakoitzak bere euskararekin bat egitea eta, era berean, euskara batuarekin bat egitea, batua harturik goi mailako erregistrotzat gainerrako euskaldun guztiakin harremanak izateko.

Euskalkia eta batua elkarrekin uztartu beharrak sortzen dituen arazoek konponbideak era askotakoak izan daitezke, eta konponbideok kasuan-kasuan egokitu behar zaizkio aldian aldiko komunikazio-egoerari; betiere batasunari eutsiz eta euskal hiztunen bazterketa gutxietsiz. Egoerak ere desberdinak dira, lurraldearen arabera eta euskalkien arabera. Horregatik, tentuz jokatu behar da gomendio orokorrak ezartzeko orduan, kasuan kasuko egoera bereziak alde batera utzita.

Azken aldian, euskalkien erabilera lehengoaz gain eguneratu eta sistematizatu beharrez, Euskalkien lantaldea eratu zuen Euskaltzaindiak Jagon sailaren baitan, bertara bilduz lurralde nahiz euskalki anitzetako ordezkariak. Lantalde horrek bi galdeketa egin zituen 2001ean: bata, Bizkaiko administrazioan bizkaierak duen erabileraz; bigarrena, Nafarroan (irakaskuntzan, administrazioan, herri-aldizkarietan...) euskalkiek duten lekuaz. Datu horiek eta beste bildu eta aztertu ondoren, eta bereziki Euskaltzaindiaren XV. Biltzarrean, Bilboko Euskalduna jauregian, egin zuen mahai-inguru jendetsuan hala agindurik, gaiari buruzko proposamen-zirriborro bateratua moldatu zuen Euskalkien lantaldeak; baita proposamen-zirriborro hori Jagon sailkideei eta Euskaltzainditik kanpoko ordezkariari eta adituei aurkeztu eta berorien oharrez osatu ere, gai korapilatsu honetan ahalik eta adostasunik handiena lortuz euskaltzain osoei aurkeztu aurretik. Hala gertatu da, eta euskaltzain osoek, testua eztabaidatu ondoren, adierazpen hau onetsi dute:

Adierazpena

Adierazpen honen xedea da euskara baturako eta euskalkietarako esparru eta joko-arau zehatzagoak ezartzea edo berrezartzea; horien bitartez euskaldun guztiok eroso eta eraz ari gaitzen egunero euskara erabiltzen dugunean. Horretarako, oinarrizko lau abiaburu hauek proposatzen dira:

1.1. *Begirunea izatea.*

Euskaraz mintzo diren hiztunen egoera desberdinei begirunea zor zaie, hiztun horiek euskalkiak erabili nahiz euskara batua erabili. Hortaz, hiztunen artean ez da bereizkeriarik egin behar euren jatorrizko hizkuntzaren ondorioz, euskalkiaren ondorioz edota zuzenean euskara batua ikasi izanaren ondorioz.

1.2. *Elkarren osagarri izatea.*

Euskara batuko eta euskalkietako adierazpideek, idatzizkoek nahiz hitzezkoek, elkarren aberasgarri izan behar dute: zehatzago esanda, euskalkietako formek berezko bide izan behar dute euskara batuko formatara heltzeko. Besteak beste, hiztegian, sintaxian eta esapideen arloan, euskara batua eta euskalkiak ukipenean daude, bi errealitate horiek bizi-biziak direla.

1.3. *Forma egokiak erabiltzea.*

Euskalkia erabiltzean, egoera eta eremua kontuan hartuta aukeratu behar dira formarik egokienak: eremu zabalerako, euskara batutik hurbil dauden formak, eta eremu mugatuagoetan, bertakoak ere bai.

1.4. *Araua eta gomendioak betetzea.*

Euskalkien erabilerari buruzko Euskaltzaindiaren arauak eta gomendioak bete beharrekoak dira; eta bereziki, lehenago aipatutako 1979ko bi baldintzak eta 1994ko zazpi proposamenak.

Bestalde, euskalkien alorrez alorreko erabileran, oso kontuan hartzekoak dira ondorengo irizpideok:

2. Administrazioan

Hedaduraren arabera, hiru herri-administrazio mota dauzkagu Euskal Herrian: orokorra, lurraldekakoa eta tokian tokikoa; eta bakoitzaren jardun-esparruak bere hizkuntza-eremu bereziak ditu. Horiek horrela, eta Administrazioaren eginkizunik behinena herritarrei ahalik eta zerbitzurik onena eskaintzea izanik:

2.1. Euskara idatziari dagokionez, administrazio orokorrean euskara batua erabiliko da.

2.2. Lurralde mailan diharduten administrazioek aintzat hartuko dituzte bertako euskalkiak; betiere administrazioko lexikoaren eta terminologiaren batasuna begiraturaz, erabilera orokorreko hitzen ordeak asmatzen ibili gabe.

2.3. Bidezkoa da tokian tokiko administrazioek bertako euskalkia erabil-tzea herritarrekiko harremanetan, batik bat ahozkoetan.

2.4. Herritarrekin ahozko harreman zuzena duten administrazioetako langileek tokian tokiko euskalkiaren oinarritzko ezagutza behar dute.

3. Komunikabideetan

Hedaduraren arabera, bi komunikabide mota dauzkagu nagusiki Euskal Herrian: orokorrak eta eskualde edota herri mailakoak; eta, horietako bakoitzaren jardun-esparruak bere hizkuntza-eremu bereziak ditu. Hedabidearen arabera, berriz, baditugu ahozkoak, idatzizkoak eta ikus-entzunezkoak. Horiek horrela, eta komunikabideen eginkizunik behinena herritarrekin aha-lik eta komunikaziorik egokiena lortzea izanik:

3.1. Hedadura orokorreko komunikabideek euskara batua erabiliko dute.

3.2. Eskualde edota herri mailako komunikabideek euskara batua eta eus-kalkia erabil ditzakete: biak batera; baina ez elkarrekin nahasiz, baizik atalez atal bereiziz. Hedaduraren eta hedabidearen arabera erabakiko dute kazeta-riek-eta zein ataletan, non eta noiz erabili euskara batua eta zeinetan, non eta noiz euskalkia.

3.3. Euskalkia erabiliz jardun behar duten kazetarietara eta aski landua behar dute izan hartarako gaitasuna, ahozkoa nahiz idatzizkoa, euskalkiaren duintasunaren hobe beharrez. Lanean, bereziki gogoan izan bezate Euskal-tzaindiak gaitzetsi egiten dituela ahozkoan eta lagunarteko hizketan ohikoak diren laburtzapenak eta tokian tokiko fonetismo bereziak.

3.4. Hizkuntza-erregistroa hautatzerakoan, kazetarietara eta erabakiko dute zein ataletan, non eta noiz erabili euskara landua (batua nahiz euskalkia) eta zeinetan, non eta noiz lagunartekoa.

4. Irakaskuntzan

Hezkuntzan, gutxienez, erregistro biren erabilerak behar du lekua: lagu-nartekoak eta landuak (eskolari zuzen-zuzenean dagokionak), betiere gogoan izanik ahozkoaren eta idatziaren arteko bereizketa. Izan ere, hezkuntzaren zereginik behinenetariko bat ikasleei hizkuntzaren erabileran ahalik eta trebe-tasunik handiena ematea da: hizkuntza aberatsa eta egoeraren arabera. Horiek horrela, ondorengo urrats hauek izan beharko lirarteke kontuan:

4.1. Euskalkiek euren nortasuna dute, eta hezkuntzan jagon egin behar dira euren osagai esanguratsuak nahiz hizkuntzan betetzen duten funtzioa, betiere idatzizkoaren eta ahozkoaren arteko desberdintasuna kontuan hartuz eta batasunerako arauak betez.

4.2. Lagunarteko hizkera –gehientsuenean behinik behin–, euskalkian edo azpieuskalkian oinarritzen dela gogoratu behar da; eta landua, ostera, euskara batuan edo euskalkiaren erabilera landuan. Horrenbestez, hezkuntza-komunitateak, egoeraren arabera, beharko du bideratu hezkuntza-prozesu bakoitzari dagokion erregistroa, batez ere lexikoan eta esapideetan.

4.3. Irakasleak hezkuntza-jardunean aritzeko, gomendagarria da hizkera landuaren eta lagunartekoaren jakitun egotea. Horrela, lagundu ahal izango dio ikasleari hizkuntzaren erregistroen erabilera-esparruetan. Horretarako ere, ezinbestekoa da irakasleen berariazko trebakuntza.

4.4. Umeei dagokienez, Euskal Herriko haurren jatorrizko hizkuntza aintzat hartuta –betiere helburua euskaldun osoak sortzea izanik–, metodoaren aldetik, hots, ikasgela eta ikasmultzo berean jardunik, guztiz mesedegarria da haurren hizkuntza-gaitasunaren arabera jardunbideak lantzea.

4.5. Helduei dagokienez, euskalduntzea eta alfabetatzea bereizi beharko lirateke; lehen kasuan, euskalduntzean, zerotik abiatzen delako ikasprozesua eta, bigarren kasuan, alfabetatzean, ikasleak dakienetik ez dakienera delako ikasprozesua.

5. **Adierazpen** hau garatzeko, Euskaltzaindiak alorrez alorreko gomendioak eta irizpenak emango ditu.

AURKIBIDEA

Aurkezpena	7
Aitzin solasa	9
Sarrera	11
1. Euskararen kalitatea adituen iritziz	15
2. Hizkuntzaren bariazioa eta erregistroak	19
2.1. Hizkuntzaren bariazioa	19
2.2. Erregistroak	20
3. Euskararen trataera teorikoa eskolan	27
3.1. Erregistro formaleko ahozko euskara. Hizkera zaindua ..	27
3.2. Euskaltzaindiaren adierazpena euskalkien inguruan. Lagunarteko hizkera	29
3.3. Oinarrizko Curriculum Diseinua... ..	30
3.4. Derrigorrezko eskolaldirako Euskal Curriculumaren pro- posamena.	33
3.5. Ondorioak	38
4. Euskararen trataera praktikoa hainbat ikastola eta ikastetxetan .	41
4.1. Hegoaldean	41
4.2. Iparraldean	45
5. Euskararen trataera-markoa zehazten hasteko lehenengo urratsa	47
5.1. Eskolaren zeregina eta funtzioak	47
5.2. Eskolaren helburuak, hizkuntza-ereduei dagokienez	49
5.3. Eskolaren helburuak, hizkuntza-mailei dagokienez	51
6. Aukeren araberako markoa	53
6.1. Inguruko euskalduntasun maila	53

6.2. Eskolaurrea eta Haur Hezkuntza	56
6.3. Lehen Hezkuntza	56
6.4. Erregistro familiarrak, ez-familiarak, kodeak eta etapak .	58
6.5. Euskararen eremu formalak eta ez-formalak Ikastolan ...	59
7. Kontuan hartu beharreko beste faktore batzuk	63
7.1. Profesionalen prestakuntza eta jarrera	63
7.2. Ikasleen jatorrizko ezaugarri linguistikoak	63
7.3. Arrazoi psikolinguistikoak	63
7.4. Arrazoi soziolinguistikoak	64
7.5. Ahozkoa eta idatzizkoa	64
7.6. Material didaktikoa	64
8. Eremu erdaldunak	67
8.1. Zalantzak hizkera ereduarekin	67
8.2. Euskararen erabilera vs erregistroak	68
Amaiera gisa	69
Bibliografia	71
Eranskinak	75
I. Euskara batua, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak ...	77
II. El euskara común, los dialectos y las hablas locales	80
III. Euskara batua eta euskalkiak irakaskuntzan	83
IV. Euskalkien erabileraz Irakaskuntzan, Komunikabideetan eta Administrazioan. Euskaltzaindiaren 137. araua	85

